



ARGIA



LURRAREN DEFENTSAN
MOBILIZAZIOA

**Korporazioen
“trantsizioari” planto
egiteko hamaika borroka**

26-29. orrialdeak

#2.867 | 2024/04/21 | 4,00 €



**Oihan anitzak
ezinbesteko, klima
berotzearen aurrean**

12 | INGURUMENA



**Aspaldiko lehia
bizienaren atarian,
hainbat gako**

30 | EAEKO HAUTESKUNDEAK



**“Gure Cristóbal
Balenciaga propioa
sortu dugu”**

40 | MORIARTI

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #295
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



DRONEA

MENDE HONETAKO INPERIALISMOAREN FETITXEA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **IBAI ARRIETA / ARGIA CC BY-SA**

Iritziak

- 21 | ENDIKA ALABORT
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | IÑAKI BARCENA
- 23 | ARANTZA GUTIERREZ
- 24 | MATI ITURRALDE

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


12 | OIHANEN KOLAPSOA SAIHESTU DEZAKEEN BIOANIZTASUN GLOBALA NOLA ZAINDU?

Oihanen azterketek erakusten digute muturreko eguraldiei aurre egiteko hainbat ekosistemaren gaitasuna bioaniztasun mailari lotua zaiola. Nicolas Goñik azaldu du Net Hurbil atalean.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | ELISABETH PEREZ

“Adimen Artifiziala etorkizuneko tresna ei da, baina bere funtsa iraganeko sormen lanak lapurtzea da”

Reyes Ilintxeta

26 | LURRAREN DEFENTSAN MOBILIZAZIOA

“Ez da trantsizioa, espekulazioa da”

Estitxu Eizagirre

30 | EAE-KO HAUTESKUNDEAK

Apunte batzuk atarikoan

Gorka Peñagarikano

44 | KULTURA | BALENCIAGA TELESAILA

“Nabaritu dadila euskaldun batzuok euskaldun baten istorioa kontatu dugula”

Gorka Peñagarikano

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: S5 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:





Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Heriotzaren merkatarien harrokeria

Moncloa jauregia, martxoak 18: industria militarreko elitea Espainiako presidente Pedro Sánchez eta Defentsa ministro Margarita Roblesek bilduta. Azken lerroan, euskal ordezkariak: Juan Ignacio López Gandasegui (Aernnova); Jokin Aperribay (SAPA); Carlos Azola (ITP Aero); Andrés Sendagorta (SENER). Argazki esanguratsua da, ez baita ohikoa. Heriotzaren merkatariak harro agertzen dira, egungo klima gerrazale eta militaristan herritarren ongizatearen defentsaren berme gisa azaldu daitezkeelakoan. "Ezkerreko" gobernuak harro, baina lotsatuta. Gehitxo ez ote den: argazkia egin bai, baina ez dute zabaltzeko lanik hartu eta hedabide gehienek ez dute jaso. Herritarren esku dago eldarnio militarista salatu eta harrotuta dabiltzanak lotsagorritzea, Gazako edo Ukrainako gorpuekin zein gure beldurrekin negoziatzea egiteagatik.

📍 POOL MONCLOA / JOSÉ MANUEL ÁLVAREZ

📸 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA



Iruñeko Erorien Monumentua: eraitsi ala eraldatu?

 XABIER LETONA BITERI

Iruñeko Erorien Monumentuarekin zer egingo da? Hori da legealdi honetako gai izarretakoa Hiri Buruzagian azken asteetan. Joan den astean, Joseba Asiron alkateak kazetarien aurrean jakinarazi duenez, legealdi honetan emango zaio irtenbidea gaiari eta herritarrek erabakiko dute.

Monumentua 1942an eraiki zuten frankistek 1936ko Gerran estatu kolpearen alde hildakoak omentzeko. Nafarroan oroimenaren alde lan egin duten talde eta pertsonak beti eskatu dute monumentua eraistea, euren ustez haren presentzia hutsak frankismoaren biktimak berriz biktimizatzen dituelako.

Trantsizioaren ondoren Nafarroako instituzioak gobernatu dituzten UPN eta PSNrentzat, aldiz, inoiz ez da lehen-tasuna izan ez monumentua eraistea ezta haren esanahia aldatzea ere. 2015eko aldaketa politikora arte Nafarroan ez zen Erorien Monumentuaren aurkako mugimendurik izan. Hala ere, Espainiako oroimen lege berriek eraikinean ukituak egitea behartu zuten eta, horren ondorioz, fatxadatik estali zen erori frankisten gorazarre egiten zuen aipamen oro, eta eraikinari bestelako funtzioak eman zitzaizkion, hala nola erakusketa aretoarena.

Eraistea erabakiko balitz, Iruñeko Udalak eskatu beharko lioke Nafarroako Legebiltzarrari babes maila hori bermatzen duen foru legea aldatzea

2015era itxaron behar izan zen Iruñeko Udalak gaiari lehenengoz eraiste edo eraldatze klabea heltzeko. Horrela, Joseba Asironen udal gobernuak monumentuaren etorkizunari buruzko prozesu zabala jarri zuen abian. Tarte horretan, halaber, bertan ehortzita zeuden hainbat karlista eta falangistaren gorpuzkiak atara zituzten eraikinetik –tarteetan Mola eta Sanjurjo jeneralenak– eta lehiaketa prozesu bat zabaldu zuten monumentuaren eta inguruaren etorkizunaz erabakitzeko.

Zazpi proiektu aurkeztu ziren eta haietako bakarrak proposatzen zuen monumentua eraistea. Beste seik eraikina eta lekua eraldatzea mahai gaineratu zuten, oroimena ere tartean, baina lekuari beste zentzu eta erabilera bat emanda. Eraldatzearen aldekoen artean, dena den,

batzuek eraikinaren zati batzuk eraistea proposatzen dute. Edozein kasutan, UPNk gidatutako Navarra Sumak irabazi zituen ondorengo udal hauteskundeak eta Asironen udal gobernuaren proiektua bertan behera gelditu zen.

OROIMENAREN ALDEKO ERAKUNDEEN OIHUA: "ERAITSI!"

Legealdia hasi denetik, oroimenaren aldeko Nafarroako elkarte gehienak indar handiz ari dira eskatzen monumentuaren eraistea. Berriki, esaterako, horietako 26 elkartetik –Erorien Monumentua Eraistearen aldekoen Asanblean antolatuta dira– ekitaldia egin zuten Askatasunaren Plazan –hala deitzen da tokia 2016az geroztik–. Joan den astean, halaber, Nafarroako Legebiltzarreko lehen-dakari Unai Hualderekin bildu dira.

Asironen udal gobernuak dio monumentua eraitsi edo eraldatu egingo dela, herritarrek erabakitzen duten moduan. Alabaina, gaurkoz eraistearen aukera ezinezkoa da, besteak beste, Nafarroan ondareaz arduratzen den Viana Printzea erakundeak eraikina babesten duelako. Horregatik, prozesuan eraistea erabakiko balitz, Iruñeko Udalak eskatu beharko lioke Nafarroako Legebiltzarrari babes maila hori bermatzen duen foru legea aldatzea.

Udaletik harago ere jorratu beharko da gaia, beraz, eta Unai Hualdek parlamentura eramango duela agindu die eraistearen aldeko taldeei. Hedabideen aurrean Asironen esandakoaren arabera, berak badu bere iritzia gaiaz, baina ez zuen esan, iruditzen zaiolako inpartziala izan behar duela. UPNk dagoen bezala utziko luke eraikina eta espazioa, eta gainerako alderdi nagusiek orain arte ez dute argitu haien jarrera zein den.

Dena den, eraistearen aurka egingo duen palanka garrantzitsua Nafarroako Gobernua izango da. Oroimenaren gaia daraman Nafarroako Gobernuo Bake eta Elkarbizitza zuzendari Martin Zabazak adierazi du jada gobernu ez dela eraistearen aldekoa, eta PSOE ere ofizialki ildo hori ari da lantzen bai Nafarroan, bai Espainiako Estatuan ere. ●



Erabakimena



UXUE APAOLAZA LARREA

Balirudike dena kontrolpean dagoela, badakitela guri nola sinetsarazi edozer, ez dugula inoiz, berez, guk nahi duguna egiten. Iragarki konstante batean bizi bagina bezala, esaten dugu “aukera berdintasuna”, eta pentsatzen dugu esaten ari garela “aukera berdintasuna”, edo PSEk esaten du aniztasuna, hizkuntzez ari direnean, eta ulertzen dugu aniztasuna bermatu nahi dutela. Politikariek maiz esaten dute “jendeak badaki”, “jendea ez da inozoa”... eta kontrakoa esan nahi dute, hori esaten dutenean, jendeak beraien alde egin baitu, ziur. Hala ere, sinetsiko ez bagenu, iragarkiari jostura guztiak ikusita ere, zer.

Zer ez dugu ikusi Palestinan. Zer iragarki-egoerak estal dezake hura? Hemen badugu gertatzen ari denaren nolabaiteko bertsio kontrastea, kazetari asko dira han begiak dituztenak, eta hangoa azaltzen digutenak (ze preziotan), eta hala ere... Izan zitekeen gizartea konbentzitu dutela berriro, arma-enpresei komeni zaiena guri ere komeni zaigula sinetsi izana, baina ez da hala. Errusia deabrua zela errazago sinetsarazi zuten, Palestinarrei gertatzen ari zaiena Hamasen errua dela baino. III. Mundu Gerraz aspaldi ari gara entzuten, eta segidan, nuklear (hauteskundeetan ere pentsatu behar genuke gauza hauetan, klase ertainkideok). Iran entzun dugu egunotan.

Eta jarraituko dugu armak entzuten, arma enpresei komeni zaiena egiten... berez, ez gaituztelako konbentzitu behar. Horrek gauzak pixka bat zailtzen dizkie hauteskunde kanpainetan nahi dituzten emaitzak lortzeko (edo lortzen ez badituzte, gero, emaitzak zuzentzen), baina, berez, nahi dutena egin dezakete. Ez daukagu erabakimenik. Ezin dugu erabaki bonbardatu, ala ez; ezin dugu erabaki nor bonbardatu. Bonbardatzen ari gara. ●



Klima larrialdia

Suitza zigortu du Estrasburgok, estatu horrek bideraturiko klima politikak herritarren osasun eskubidea zangopilatzen duelakoan. Ebazpena txalotu dute ekologistek; diotenez, presioa izango da gainontzeko estatuentzat ere, klima politika ausartagoak bideratu ditzaten.

Herri galdeketa

Donostiako Igeldo toki entitate txiki bihurtu da: auzo batek baino eskumen gehiago izango ditu. Hala bozkatu dute igeldoarrek, Donostiako Udalak eta Igeldoko Herri Kontseiluak deituta. Entitate txiki izatearen alde 391 boto jaso dira (%84,6), 65 kontra (%14), 4 zuri eta 2 baliogabe. Parte-hartzea: %46.

Zaintza

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak zaintza sistemaz aurkeztutako itunak kritikatu ditu Denon Bizitzak Erdigunean plataforma feministak. Greba feminista orokorretik gauzak ez direla aldatu salatu dute eta neurri “konkretuak, adostuak eta errealak” eskatu dizkiete alderdiei.

Eraikinaren gorputza



ULA IRURETAGOIENA

Baltimore ibai gaineko zubiaren erorketa urte bukaerako oroimeneko irudien artean jasoko da, zubi baten erorketa ikuskizun zirraragarri eta salbuespenekoa baita. Zeren eta zubiak eta eraikinak ez dira berez erortzen, lehergailu edo artefaktu baten ez-tandak bat-batekotasunaren lur-jotzea dakar, brruuuummm soinu hotza eta hauts igoe-ra larriarekin batera. Hezurduraren berezkotasunak zutik mantentzeko joera du, izaki bizidunek bizirik egoteko joera naturala dugun bezalaxe. Egituraren kolapsoak aurreikusituz ezinezko istripu bat behar du, gertakizun baten erorketa gauzatzeko. Gainontzeko istripu asko aintzat hartzen dira hezurduraren kalkulurako edo eraikinen bizi-esperientziek erakusten dute zurruntasuna izateko egituraren nolakotasuna lodieran eta forman.

Giza-gorputzaren kolapsoa ere oso arraroa da. Eraikina eta espazioa gorputz baten metaforarekin azaltzeak gertutasuna eta maitasuna eskaintzen dio eraikuntzaren materialtasunari, ustez. Eraikin bat zahartu eta gaixotu egiten da, giza-gorputzaren antzera. Ez da antropomorfismoa, materiaren bizi-zikloa ulertzeko modu erraz bat baizik. Naturako beste espazio baten moduan, gauza berdina baita, gizakiak eginga izanagatik ez dio bizi-zikloetatik aldantzen eta. Eraikinak barkarri laga eta tristetu egiten dira energia hilarekin gelditzen direlako; eraikinarekin utzikieriaz harremandu ezean hautsaren presentziak atxikimendu eza adieraziko du. Gizaki eta eraikinaren erlazioaz gain, edadeak ere eragiten du espazioan: denboraren poderioz eraikinek arrakalak agertu ditzakete mugimenduen arrasto gisa edo gaixo daudela komunikatzen dute pitzaduren bitartez. Beste edozein organismo bezala, eraikinek atentzioa eta zaintza eskatzen dute, bestela bere izaeraren ezaugarriak aldatu egiten dira. Etxearen mantenuaz hitz egiten dugu ekintza tekniko eta hotz baten moduan, mantenua etxearekiko dugun maitasun harremanaren adierazpena denean. ●



Zure umeak galtzen bal daki?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Irabazi edo galdu, berdin dio” esaten diegu seme-alabei, baina Errege Kopako finalak islatzen du nola bizi dugun gaia helduok, eta umeak ez dira inozoak. Irabazi nahi dute, eta horretarako prestatzen ditugu. Zein lezio handia den, ordea, bizitzan galtzen ikastea.

“Umetan galtzeari iheska ibilita ez da ezer ikasten”, dio Iñaki Artola pilota-riak. Ez du arrazoirik falta. Maiz gurasoak saiatzen gara joko eta jolasetatik lehia ezabatzen, edo zuzenean haurrari irabazten uzten, gozatzeari laga ez diezaion. Baina lehenago edo beranduago, guk eraikitako burbuilatik at lehiatuko dira. “Kostatzen zaigu haurrak frustratuta ikustea, beraiek gaizki pasatzen dutenean guri barruraino sartzen zaigulako, baina ez dago ikasteko beste modurik”, dio Esther Martinez adituak. Eta hori ere jakin badakigu gurasook, badakigu huts egitea dela ikasteko bidea, praktikan desio dugun arren seme-alabek garaipena baino ez dezatela dastatu.

Jokoak berak erakutsiko dio haurrari galtzea zer den, akaso guk geuk nola bizi dugun kuestionatzea eta zer transmititzen dugun birpasatzea dagokigu. Norberak irabazi eta galtzea natural eta ongi bizi badu, prozesuan akonpainatzea besterik ez dela esan dit lankideak: haurrari atea irekitzea bere beldurrez, ahuldadeez eta segurtasun-gabeziez hitz egiteko, erakustea huts egiten duenean ez dugula gaizki bizi. Prozesu gisa ulertzeak ere laguntzen du: haurra amorratu eta frustratu delako harekin haserretu beharrean, galtzea ez dela horrela jartzeko errieta egin beharrean, hobe izan daiteke bere sentimenduak ulertu eta kanalizatzen laguntzea; haur bat parkean, frontoian, zelaian sumindu delako hura eta haren gurasoak epaitu beharrean, egoerarekin enpatizatzea ere gaizki ez (“azken finean, nire seme-alabak ere desegoki jokatuko du uneraren batean, ikasten ari direlako, besterik gabe, eta hori onartu egin behar dugu”, gogoratu digu Martinezek).

Kontua zera da, zenbat etxetan bizi ote dute -kontzienteago, inkontzienteago- kontrakoa? Zenbat umek dute irabazteko presioa, galtzeagatik gurasoei kale egiteko beldurra, inguruko espektatibak ez betetzeko estualdia, etxe-koen onespina bilatzeko beharra? Ongi azaltzen du Artolak: “Galdu duenean umeari sortzen zaion sufrimendua baino handiagoa da askotan gero ematen zaion irakurketak sorrarazten diona; gurasoek edo lagunek diferentxeago tratatzen badute irabazi edo galdu duenaren arabera, arazoa hor hasten da”. Beharbada, haurrek zuzenean edaten baitute gurasook jolasa eta jokoa bizitzeko dugun modutik, lehenengo helduok ikasi behar dugu galtzen eta irabazten, ondoren haurrei irakatsi ahal izateko. ●

11.000

zuhaitzen mozketan aldarrikatu dute Azpeitian eta Berangon, "landaketa industrialaren" aurkako ekintzan. Lurraren Altxamenduak mugimenduak eman du aurreko asteetan buruturiko ekintzaren berri.

117

pertsona, gutxienez, auzitara eraman dituzte Europan 2023an, migratzaileei laguntzeagatik. Pertsona migratzaileak laguntzea kriminalizatzen duten politikak nagusi dira Europar Batasunean, salatu dute aktibistek.

50.000

afliatuko langa gairiditu du LABek. Aldaketa soziopolitikoak lortzeko "eragile aktibo" izanen dela nabarmendu du sindikatuak, 50. urteurreneko ospakizunean.

"EUSKARAREN BORROKA GAZTETZEN ARI DA, OSO AZKAR"

Sugoi Etxarri, EHE

“ ”

"Euskalgintza, azken urteotan, nahiko baxu egon da indarrez, eta instituzionalki egin beharko liratekeen aldaketak eskatzera bideratuta, edo adostasun sozialak lantzerako. Lan hori beharrezkoa da, baina ahaztuta utzi dugu kaleko euskalgintza. Gauzak hain zuzen edo hain hitz neurtuekin esan beharrean, sentitzen eta bizitzen ditugun bezala esan behar ditugu, politikoki hain zuzenak izan gabe, inor mintzeko beldurrez ibili gabe, gordinago".

"Lan egiten dudan institutuko ikasle batzuek esaten zidaten normala dela hamar euskaldun eta erdaldun bat dagoenean denak erdaraz aritzea. Hor ikusten da nola nagusitu den logika orokor bat, guztiz euskararen aurkakoa. Despolitizazioak, praktikotasun hutsa bilatzeak, kontzientzia galera eragiten du. Gatazkak ikusezin bihurtzen dira".

Euskal Herrian Euskarazek Harrotze Astea egingo du lehen aldiz, apirilaren 22tik 28ra. Bost ekintza nazional eta herriz herriko hainbat dinamika antolatu dituzte.

Onintza Irureta Azkunereren elkarrizketa osorik:

www.argia.eus

2024 / 04 / 15



Indarkeriatik deskonektatu




DIANA FRANCO

Eremu digitalak, gizakion dinamike-tatik edaten duen heinean, gizarte eredu ezberdinetan aurkitu ditza-kegun antzeko arazoak ditu. Pertso- nen arteko arazo asko botere kontua izan ohi da; botere arazoek indarkeria dakarte zenbaitetan. Esate baterako, indarkeria matxista.

Eremu digitalari lotuta, kolektibo ugari lanean dabil Indarkeria Matxista Digitalen inguruan (IMD). Fem Bloc arreta zerbitzua horietako bat da. Fem Bloc zerbitzuaren arabera, jaso dituz- ten laguntza eskaera gehienak bikote harreman bat eten ondoren ematen den indarkeria digitalari loturikoa da, hala nola kontrol eta zelataritza digita- la, jazarpen digitala, mehatxuak edota xantaita.

Jokabide horietatik babesten ikaste- ko, honako gida sortu dute: "Zure biko- te ohitik deskonektatu" (<https://desconnectadetuex.net>). Bertan, besteak beste, zure gailu, datu eta kontuak babesteko ezagutza aurkitu dezakezu. Baina in- teresgarriena da segurtasun digitalari loturiko ezagutza hori guztia zelan uler- tzen duten: segurtasun holistikoz hitz egiten dute. Euren hitzetan, segurtasun digitalak, ikuspuntu holistikoa batetik, hiru aldagai hartzen ditu kontuan: se- gurtasun digitala, segurtasun fisikoa eta ongizate psikosoziala. Horrela, aldarrir- katzen dute errealitatea nolabait dena dela, eta berriz gogoratzen digute esku- hartzea hainbat bidetik egin behar dela.

Beharbada, indarkeria matxisten eta bestelako indarkerien inguruan lan egiten duten profesionali konplexua irudi ahal zaie esku-hartzeak egiterako orduan digitalizazioak dakarren beste aldagai hori ere kontuan hartzea, baina euren inork baino hobeto jakin bada- kite zeinen mutantea den indarkeria. Horregatik, etengabeko berrikuntza ematen da haien lanetan, indarkeriak bilatzen dituen zirrikituak ezagutu eta aurre egiteko moduak aurkitzeko. ●



Gerra eta hipokrisia gehiago

AXIER LOPEZ

Iranek iragarri zuen erantzun egin- go ziola apirilaren 1ean Damaskoko bere kontsulatuaren aurka Israelek egindako erasoari. Nahiz eta nazioar- teko zuzenbidearen -baldin eta hori existitzen bada- urraketa argia izan eta horrelako eraso bat Mendebaldeko beste edozein herrialderentzat gerra deklaratzeko litzatekeen, Iran prest ager- tu zen erantzun armatuari uko egiteko Gazan su-etena ematearen truke. AE- Bek, Frantziak eta Britainia Handiak, besteak beste, halakorik ez gertatzeaz arduratu ziren.

Eta horregatik, larunbatean Errepu- bliko Islamikoak, lehen aldiz historian, entitate sionistari egin zion eraso. Israe- lek okupatutako lurraldetara ehunka misil eta drone jaurti zituzten Irandik eta Irakeko eta Yemengo zenbait ba- setatik. Aparatu gehienak neutralizatu zituzten, ordea. Ez da biktimarik izan, kalte material txikiak, besterik ez.

Izan ere, ez da ustekabeko erasoia izan. Dena kalkulatu dirudi. Kazetari askok azpimarratzen dutenez, Iranek eszenifikazio kontrolatua bilatu du, eta horregatik eman zion erasoaren abi- sua Jordaniari. Jordania, Israelen atze- tik, Mendebaldeko inperialismoaren zipaiorik handiena da zonaldean, eta, jakina, beren nagusiari eman zion era- soaren berri. Horri esker, AEBek ba- liabide asko zabaldu ahal izan dute eta ondo koordinatu Israel, Erresuma Ba- tua, Frantzia eta Jordaniarekin.

Gisa horretan, Iranek mendeku aho- tsak baretu ditzake, baina kalte handi- rik eragin gabe, eta sionisten erantzuna hain bortitza izango ez delakoan. Ekua-

zioa, bide batez esanda, arriskutsu xa- marra da, erregimen sionistaren buru nor dagoen jakinda. Teheranek "afera amaitutzat" eman du eraso honekin.

Netanyahuren erregimena erasoia baliatzen ari da Gazako genozidioaren arreta desbideratzeko eta Mendeba- ldeko aliatuen babesa indartzeko; are gehiago AEBetan hauteskundeetan murgilduta egonik eta Alderdi Demo- krataren barnean dirua eta armak Is- raelera masiboki bidaltzeari uzteko deiak gero eta ugariagoak izanik. Ne- tanyahurentzat gerraren maila igotzea eta hedatzea da itxaropen bakarra bere arazo politiko eta legalak gainditzeko.

Iranen ekintzaren aurkako gaitzes- penak herrialde askotatik iritsi dira. Baina Israelek Damaskon egindako era- soaren aurrean adierazi zirenak baino askoz ugariagoak eta irmoagoak dira. Izan ere, kritikek eta kondenek ez dute zerikusirik moralarekin, etikarekin edo bakezaletasunarekin: droneen jabea- ren arabekoak dira. Iranen erasoaren ostean, Tel Avivek publikoki ospatu du "mundua Israelekin egotea eta gure bu- rua defendatzeko eskubidea babestea". Hau da, sionisten zigorgabetasunak bere horretan jarraitzen du.

Palestinako genozidioak gauza bat utzi du argi: hemen zeinek agintzen duen. Nazioarteko Komunitatea deri- tzonak, NBE buru, ez du zer esanik, ez du ezertxo ere agintzen. XXI. mendean su motelean genozidioa egin daiteke eta zuzenean transmititu. Horretarako baldintza bakarra da herrialde baten babesa izatea: AEBak. Inperialismoa horrelakoa da. Erraza bezain krudela. ●

ASTE POLITIKOAREN KRONIKA

Emaitzen aurreko emaitzak GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Euskal Erdiko politikagintza instituzionalak gero eta antza handiagoa du Espainiakoarena. Analista batzuek esan zuten aspaldi igandeko hauteskunde emaitzek ohi baino gehiago kitzika lezakeela hango *establishment*-a, EAJ-PSE formula mitikoaren nagusitasuna zalantzan jarri, PPren igoera berretsi eta, giroa zakartzeko punturik inportantea, EH Bildu estreinakoz alderdirik ordezkatuena edota bozkatuena izan. Berotzen ari da giroa, azken inkestek lagunduta.

Baina harago doa kontua. Eta ez da hemen tresnak ez zeudelako, hara heldu bezala iritsi baitzen Twitter eta bere magia. Aurten arte ikusi gabe geunden, ordea, horrelako material grafikorik. Urkulluren aroan imajinaezina zatekeen lehendakarigaia behi artean ikustea, ezta YouTuben bueltaka dabilen anuntzioan ere, “bozkatu EAJ” esateko, hiru emakume zuri eta gizon beltz bat agertuko zitzaizkigukeenik, edota paralelismo *kutre*-an hauteskundeak Tinderrekin lotuko zirenik. Zentzu berean Elkarrekin Podemosen komiki/boto gutunak, edo sagardotegian abiatzen den haien esketxa, hainbat egoera *erridikulu* dituen, Athletic-eko kamiseta duen realzalea eta, gabarra/tabarra testuinguruan. PP ikusi dugu askotariko koloreko txape-

lak janzten, Anduezen “Enekoneta” furgonetarena ja beste maila batean dago... Eta espero gabe suertatu den beste, Getxon, Voxeko faxista bat kaleko pankartak kentzen hasi dela eta zakurra paseatzen ari zen bizilagunak txilioka betean hartu duela. Espainiako Estatura gero eta gehiago begiraten duten euskal alderdi politikoez lortu dute hango demasa hona ekartzea. Igual gazteak erakartzeko modua horixe zen.

Baina hainbesteko antza ere ez du oraindik. Izaeraz geldoagoak gara. Gatzgabe samarrak dira debateak. Makina bat argi-urteetara dago 2008ko Zapatero-Rajoy buruz burukoaren pareko zer-bait. Anduezak seguru apunteak hartu zituela hortik ETBko eztabaidara joateko. Kokotsa altxatu eta bekainarekin bi aldiz gora-behera egite hori... GIFerako material ederra. Jokoa banatzen hasi zen, baina ez zion inork segitu, eta, egia esan, merezi ere ez zuen merezi. Otxandianok bai bilatu zuen buruz burukoa Pradalesekin, baina eskua luzatzeko ariketa egin zuen gehiago, haren aurka zuzenki lehiatu baino. “Gauzak gaizki egin dituzue, baina lasai, hobeto egin daitezke, egingo ditut nik, eta zuek lagundu”. Sinpleki horrela laburbildu daiteke.

Sei hautagai egon ziren ETB1eko debatean. Zazpigarrena falta zen, Vox,

baina euskaraz dakien inor ez dabilenez hor, edo euskal telebista desagertu behar dela aldarrikatu izan duelako akaso, total, ez zen inor joan. Ondo ulertzen ez dena da zergatik gonbidatu zen Sumar, ordezkari parlamentarioz ez baitauka. Saiatu zen ezerezetik presentzia egin eta ika-mikak mantentzen PSE-rekin, baina espektro berean Podemos egonda, ikus-entzule orokorrarentzat zail samarra zen bereizketa argiak egitea. Eta, esan behar da, errepasso galanta eman ziola Gorrotxategik. Esperientzia gehiago du eta nabaritu zen. Betaurreko moreak jantzita nahiko abila izan zen kolpeak banatzen.

Gorrotxategi ezkerretik, eta PPko Garrido eskuinetik. A ze para. Lehenak asko zuen galtzeko –desagertzear legoke–, eta besteak, bere boto-emalerei euskarak batere axola ez dienez, ez zuen ezer jokatzen ETB1en. Pradalesi hiruzpalau zaplazteko eman zizkion Garridok, eta argi esan zuen, ezkertiar izatetik gertuen egon daitekeen jeltzaleari zuzenduta, PP prest legokeela EAJren gobernu babesteko, EAJk bere botoak beharko balitu EH Bilduren balizko gobernu bat sailhesteko. Hala bada, garesti irten behar zaio Pradalesi situazioak horretara eramango balu. Eskalan biderkatzea litzateke Durangoko Udalean eta Gipuzkoako Diputazioan gertatu dena.

Eztabaidetan sartzeko betarik ez zuen Pradalesen aurrean, Otxandiano fuerte bat ikusi genuen ETB1en. Oposizio gogorrik egin gabe, alternatiba errealean itxura eman zuen. Gainontzekoei kome ni ez zitzaien moduan aritu zen hautagai subiranista: erraz, suelto eta bere aurka etor zitekeen ezer sendorik planteatu gabe, jarrera irekiarekin. Bazirudien zela euskara ondo baino hobeto menperatzen duelako Otxandianok, eta parean zituenez problemak zituztela haien iritzia euskaraz adierazteko. Bozkatzera joan aurretiko emaitza argietako bat horixe da. ●



OIHANEN KOLAPSOA SAIHESTU DEZAKEEN BIOANIZTASUN GLOBALA NOLA ZAINDU?

Ekosistema askok itzulera gabeko puntuak dituzte, hau da, estresa maila berezi bat pairatuz gero –izan klima aldaketa, kutsadura edo kalte fisiko zuzenarengatik– desagertzen ahal dira, eta ekosistemak haien artean konektatuak izanez gero hurrenez hurren elkar erorarazi dezakete. Halere, oihanen azterketek erakusten digute muturreko eguraldiei aurre egiteko hainbat ekosistemaren gaitasuna bioaniztasun mailari lotua zaiola. Baina biosferaren oreka globalean eragina duten ekosistemak zaintzeko ereduak oraindik sortzeke dira.

 NICOLAS GOÑI

Giza jarduerak industrializatzen hasi zirenetik mundua hainbat modutan aldatu da, edo zehazkiago erranik, munduaren aldaketa asko azeleratu da. Azeleratze global horren erru nagusiak nahiko eta gehiegi ezagutzen ditugu: erregai fosilen erabilera, hainbat molekula sintetikoren ekoizpen masiboa eta hainbat ekosistemaren hondatzea edo artifizializazioa. Baina konkretuki, aldaketa global horrek maila eta mota ezberdineko hainbat aldaketa barne hartzen ditu, horietarik batzuk jarraituak, eta bertzeak, aldiz, bat-batekoak. Jarraituak dira atmosferan berotegi efektuko gasen kontzentrazioaren igoera edo uren eta airearen kutsaduraren emendatzea. Bat-bateko aldaketak

dira egoera batetik bertzerako aldaketa suposatzen dutenak. Kasu horietan estresak eragindako erantzuna ez da jarraia: lehen denboraldi batean, estresa emendatu ahala erantzun guti ikusten da, baina estresak maila berezi bat gaingiduz gero, orduan sistema erabat aldatu eta bertze egoera batera pasako da.

Ahalezko aldaketa horietarik potoloena aipatu genuen ARGIAren 2843. aleko *Ozeanoen korrante sistema uste baino egongaitzagoa izan daiteke, eta beraz klima ere bai* erreportajearen baina mota horretako kolapsoak gerta daitetze tokian tokiko hainbat ekosistema handi edo txikiagotan, ekosistema bakoitzak biosferaren oreka globala bere neurrian bermatzen duelarik.

2023ko abenduan COP28aren kariatara argitaratu zen *Global tipping points* (Itzulera gabeko puntu globalak) txostenak arrisku horiek aztertzen ditu. Montpellierreko unibertsitatean ikerketa zuzendaria den Sonia Kéfik txosten horretan parte hartu du, eta horrela laburbiltzen du arrisku horien auzia: "Lurreko sistema osoa marraztu dezakegu haien artean konektaturiko entitate sare erraldoi baten gisara. Itzulera gabeko puntuek, dominoen gisan, hurrenez hurren elkar erorarazi dezakete. Gainera, biosferaren zati bat neurri aski handian erortzeak kliman eragiten du eta loturak alderantziz ere balio du. Horrez gain, giza jarduerak ekosistemen menpe izateak ondorioak ditu sistema ekonomiko, sozial eta politikoetan".



WIKIMEDIA

AMAZONIA Munduan bioaniztasun gehien aterpetzen duen oihanak karbonoaren eta uraren ziklo globaletan eragin garrantzitsua du. Amazoniak bizirauteko bidean, bere bioaniztasuna zaintzea gakoa da.

ANIZTASUNA EZ DA SOILIK APAINKETARAKO

Ekosistemen erorketaren eta klimaren arteko loturaz hitz egin dugu, baina klima aldaketari aurre egiteko ekosistemen sendotasun edo hauskortasun mailak zeren araberakoak dira? Eredu lurtarretan ekosistema garrantzitsuena tarikoak oihanak ditugu, eta klimaren aurrean duten sendotasuna bioaniztasunari lotua dela berretsi dute bi ikerketa berrik. Batak, nagusiki Txinako ICBR erakundetik eramanak, emaitza nagusia bere titulu laburbiltzen du: *Biodiversity mitigates drought effects in the decomposer system across biomes* (Bioaniztasunak lehortearen eraginak baretzen ditu bioma ezberdinetako biomasa usteltze sistemetan). Orokorrean gutiegi

“Lurreko sistema osoa marraztu dezakegu haien artean konektaturiko entitate sare erraldoi baten gisara. Itzulera gabeko puntuek, dominoen gisan, elkar erorarazi dezakete”

Sonia Kéfi

ikertuak dira biomasa hila jaten duten lurzoruko izakiak –zizareak kasu–, nahiz eta izaki horiek hektareako ehundaka kilo izan eta bai nitrogeno baita karbono zikloan ere garrantzi handikoak izan.

Lan berri honek erakusten digu izaki horien aniztasuna gakoa dela oihanetako biomasa hilaren usteltzea baldintza lehorretan ere gertatzeko. Biomasa hilaren usteltzea ezinbertzeko prozesua da lurzoruan karbonoa harrapatzeko, eta orokorrean oihanen biziraupenerako, basoek dituzten albo-onura guzietan. Bertze ikerketa, *Microclimate modulation: An overlooked mechanism influencing the impact of plant diversity on ecosystem functioning* (Mikroklima modulazioa: ekosistema funtzioamenduan landare aniztasunak duen eragi-



WIKIMEDIA

MONOLANDAKETAK Gero eta gehiago ikusten diren eukalipto landaketek bioaniztasun oso guti aterpetzen dute. Hori horrela, muturreko eguraldien aurrean bereziki hauskorrak bihurtzen dira.

na moldatzen duen mekanismo gutiegi ezaguna) iDiv Alemaniako bioaniztasun ikerketa zentrotik burutu dute. Horretan, 2002 urtetik hainbat ekosistemaren mikroklimatek bilakaera aztertu dute. Tenperatura aldaketek oihan eta larreko mikroklimatean eragindakoa ikertu nahi izan dute, landare aniztasunaren arabera ere aztertuz fenomenoak. Landare aniztasuna are eta handiagoa izateak gero eta gehiago baretzen ditu muturreko tenperatura aldaketak eta prozesu ekosistemikoak ere erraztu egiten ditu, bertzeak bertze, biomasa hilaren usteltzea. Funtsean, berotzen eta desorekatzen ari den klimaren aurrean, oihan anitzagoek dute hobe biziraunen eta horiek dute karbono harrapatzen jarraituko.

Bertze muturrean, monolandaketak hauskorragoak dira, eta egoera lehor edo beroetan zaluago utziko diote karbono harrapatzeari, nahiz eta zuhaitz landaketa masiboa ustezko konponbide-tzat baliatzen den, ARGIAren 2864. ale-

Berotzen eta desorekatzen ari den klimaren aurrean, oihan anitzagoek dute hobeto biziraunen eta horiek dira karbono harrapatzen jarraituko dutenak

ko CO2a atmosferatik kentzeko ingeniaritza: lurra ustiatzen segitzeko aitzakia? erreportajeaz azaldu bezala.

AMAZONIAREN -ETA GURE-GEROA

Bi ikerketa horien emaitzek munduko oihan enblematikoenarentzat -eta bertan dagoen munduko ibai handienaren-

tzat- ere berdin balio dute: Amazoniak biziraunen badu, ahal bezain anitza izaten jarraitu beharko du. Gaurko egoeran, Amazoniak bere ur zirkulazioa sortzen du, zuhaitzek eta landareek lurrinketa sortuz eta horren ondorioz tokian tokiko euriak eraginez eta hortik sasoiaren arteko eurite aldaketak leunduz.

Gainera, Amazonian bertan baino eskualde zabalago batean ematen dira Amazoniak sorturiko euriak, Kolonbiatik Uruguaira, eskualde haietako hainbat giza jarduerak bermatuz. Baina klima aldaketaren ondorioz euriak murriztu daitezke Amazonian, zuhaitzen zati bat hil eta horren ondorioz bertako euri gutiago sorraraziz. Horrek zuhaitzen heriotza dinamika bat abiaraziko luke, atmosferara karbono isurketak emendatuz eta finean, klima aldaketa are gehiago larrituz.

Gurpil zoro hori saihesteko gisan funtsezkoa da beraz Amazoniaren bioaniztasuna ahal bezainbertze babestea eta sendotzea. Horrek erran nahi du, noski,



WIKIMEDIA

ORBEL JALEAK Lurzoruan, biomasa hilaren usteltzea dugu onddo, baktería, marmarru, zizare eta bertze hainbat izakiri esker. Ezinbertzeko prozesua da lurzoruan karbonoa harrapatzeko eta oihanen biziraupenerako.

mozketa masiboak etetea. Amazoniaren %63 Brasilek kontrolatzen du, eta zuhaitz mozketari dagokionez egoera larritu zen Jair Bolsonaroaren kargupean, 2019an jadanik. Harek gainera Brasilgo burujabetza aldarrikatzen zuen mozketak justifikatzeko gisan, interdependentzia globala eta horretan zuen ardura erabat ukatuz. Zorionez, deforestazioa nabarmen gelditu zen Luiz Inázio Lula Da Silvak azken hauteskundeak irabazirik, aurkako neu-

**Oihanetan landareen
eta lurzorueta izakien
aniztasuna gakoa da
biomasa hilaren usteltzea
baldintza bero edo
lehorretan ere gertatzeko**

rriak hartu zituenean 2023an. Mundu osoaren egonkortasuna laguntzen duen ekosistema baten ia bi herenen zoria estatu bateko hauteskundeen emaitzaren menpekoa izateak zorabioa ematen du. Egoera prekario eta desorekatu hori azken mendeotan nagusiki Europan sorturiko erakundeei eta erabakitzeke erduei lotua zaie, eta gero eta nabarmenagoa da zaharkiturik daudela. Bada garaia burujabetza zehazteko modu berriak asma ditzagun. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Elisabeth Pérez

SORKUNTZAREN DEFENDATZAILEA



ADIMEN ARTIFIZIALA ETORKIZUNEN TRESNA EI DA, BAINA BERE FUNTSA IRAGANEKO SORMEN LANAK LAPURTZEA DA



Martxoan Iruñean egin zen liburu denden kongresuan ezagutu nuen Elisabeth sortzaileen lana pasioz defendatzen Adimen Artifizial sortzailearen aurrean. Handik gutxira elkarrizketa egiteko gelditu ginen Bolognako Liburu Azokara eta Kolonbiara joan aurretik. Aitortzen dut ilustratzaileen lana askoz lasaiagoa imajinatzen nuela eta Adimen Artifizial sortzailea jostailu dibertigarria dela pentsatzen nuela. Ezjakintasunean bizitzea zer den!

 REYES ILINTXETA  HODEI TORRES / ARGIA CC BY-SA

Zergatik irudigile?

Ni langile familia batetik nator eta nahiz eta "artistarik" ez izan, aitik beti izan du margotzeko grina, irakaslea izan arren, eta ama abokatua da, baina oso sormen handikoa. Ilustrazioa ikasi dut istorioekiko nire maitasunarengatik. Jakin nuen honetara dedikatzen ahal nintzela, karrera amaitu ondoren espezializatzen hasi nintzen.

Nola eta joan zinen Italiara?

Karrerako azken urtean egin nuen Erasmus bat Florentzian eta maitemindu nintzen hiriarekin. Han diseinu grafiko editoriala ikasi nuen eta liburu-objektuaren inguruko Bruno Munariren lana

ezagutu nuen. Liburua berehala saldu beharreko produktu bat baino zerbait gehiago moduan ikusten hasi nintzen.

Duela sei urte itzuli nintzen hona, baina harremanean jarraitzen dut hango profesional eta lagunekin eta lan asko egiten dut Itailan.

Irudika elkarteko zuzendaria eta sortzaileetako bat zara. Zergatik eta zertarako Irudika?

Euskadiko Irudigileen Elkartetik 2017an sortutako proiektu bat da. Italian bizi nintzela eskaini zidaten ilustratzaileen elkarteko presidente izatea. Lau urtez izan nintzen postu horretan eta orduan abian jarri genuen Irudika.

Ikusi nuen harreman gutxi zegoela kanpoko beste profesional eta joerekin. Ferria askotan izan naiz eta ezagutzen nuen munduan dagoen aniztasuna, horregatik hona etortzean pentsatu nuen ondo legokeela topaketa moduko bat egitea hemen egiten duguna eta gure kultura erakusteko eta, aldi berean, kanpoan egiten dena ezagutzeko. Irudika da elkargune profesional bat zeinean liburrurik ez den saltzen. Gure helburua hitz egitea eta gogoeta egitea da. Badakigu zein egoera prekariotan bizi garen sortzaile asko eta, kanpora bidaiatzerik ez duenak, Irudikaren bidez kanpoan egiten den zerbait ezagutzeko aukera izan dezake behintzat.



Elisabeth Pérez Fernández

BARAKALDO 1988



Ilustratzailea. EHU Arte Ederren graduan lizentziatu ondoren Italian ikasi eta lan egin zuen zazpi urtez. Bonito Editorial-aren sortzailea da. Euskal Irudigileak Elkarteko presidentea izan zen lau urtez. Gaur egun Irudika, Nazioarteko Topaketa Profesionaleko zuzendaria eta estatu mailako FADIP, Irudigile Profesionalek Elkarten Federazioko presidenteordea eta Bilboko Arte Ederretako hezitzailea da. Bilboko Uribarri kalearen 28an Segunda izeneko liburu denda-galeria dauka.

Irudika urtean behin egiten da Artium museoa. Aurten urriaren 24tik 26ra egingen da zortzigarren edizioa. Latinoamerikako herrialde bat egonen da, beste bat Europa iparraldekoa eta hirugarren bat Mediterraneokoa.

Nola sortu zen Bonito Editorial?

Ilustratzaile, idazle eta itzultzaileen lan prozesuak motelak dira. Gauzak ongi egiteko denbora behar dugu eta liburuaren sektoreak gero eta azkarrago joan nahi du. Liburuak gero eta gutxiago irauten dute liburu dendetan. Haien bizitza oso laburra da orain eta hori tragedia bat da. Horretaz gain, ikusi nuen kasu batzuetan argitaletxeek mugak jartzen dizkitutela zuk nahi duzun liburu egiteko. Horrek guztiak pentsarazi zidan agian nik neuk egin beharko nituela nire liburuak. Ekintzailatza programa batean aritu ondoren nire zigilu propio eratu nuen, beste egile batzuen bideari jarraikiz (Planeta Tangerina, Katsumi Komagata...). Espainiako editore onenetako bat, Media Vaca-koa, ilustratzailea da. Ikusi nuen mimo handiz egindako proiektuak normalean sortzaileek eginak zirela eta ez enpresariak.

Sortzaileok autoedizioarena beti harrotasunez bizi izan dugu. Mugimendu hori oso hedatua eta errespetatua da sortzaileen artean, formatua, materialak, inprimaketa eta koadernaketaren aukeraketa liburu edo fanzinearen sormen prozesuaren parteizat hartzeko aukera ematen dizulako. Gaur egun, aldiz, ospe txarra du, neurri batean autoargitalpenarekin nahasten delako eta enpresa asko sortu direlako diru truk edozein liburu argitaratzen dutenak, eta azkar gainera. Ilustratu gabeko literatura idatzian gertatzen da, gehienbat: inork ez badizu publikatzen, horietako bati ordaindu eta berehala duzu zure liburu eskuan. Baina gauza bat eta bestea bereizi behar dira. Ez da dena nahastu behar.

Bonito Editorial sortu nuen nire liburuak egiteko, baina bigarren urtean beste egileen lanak ere argitaratzea erabaki nuen. Hainbat argitaletxerekin lan egiten dut (Erein, Igela, Media Vaca, Veleta Roja...), baina lan bereziak neuk egiten ditut. *Saturnina*, adibidez, egitea zortzi urte kostatu zaidan liburu da. Nik liburu egitearen prozesuaren kontrola daukat

eta gainera lortu dezaket denbora gehiago egon dadin merkatuan ni neuz naizelako argitaldaria eta dendetatik kentzeko presarik ez daukadalako.

Nire liburu guztiek prezio bera dute: 25 euro. Beti saiatzen naiz jendeak liburuak liburuagaitik aukera dezan eta ez prezioari begira. Inprentan egiten ditudan prozesuak beti hemen Euskadin egiten ditut, dena ikustea gustatzen zaidalako eta niretzat oso garrantzitsua delako Km 0 kontzeptua, baita liburugintzan ere.

Bonito ez dut egin soilik haurrentzako liburuak plazaratzeko. Poesia eta saiakera ilustratua ere lantzen ditugu. Gustatzen zait liburuak motel kozinatzea.

Zenbat liburu egin duzu?

Hamabi ditut banatuak, baina orain beste bi aterako dira. Horietatik erdia nik guztiz eginak dira, ipuinak eta bi olerki liburu.

Hezitzailea zara Bilboko Arte Ederretako museoa. Zer egiten duzu han?

2012an hasi nintzen familientzako programak egiten. Horretaz gain, duela bi urtetik gizarte bazterketa arriskuan dauden bi emakume talderekin ari naiz lanean. Oso interesgarria da. Asteazkenetan biltzen gara museoko lanak aztertzeko eta piezak sortzeko. Emakume horiek ez dute beraientzako denborarik izaten eta ikasten dutenaz gain, bide propioak ere bilatzen dituzte barruan dutena adierazteko. Oso gauza politak ateratzen dira. Beste publiko asko baino askoz esker onekoagoak dira.

Nola dago irudigileen lanbidea hemen?

Sektorea badoa poliki-poliki hobetzen, neurri batean elkartetik egiten den lanarengatik. Zuzendaritza talde bikaina ari da lanean. 170 bat bazkide gara, gehien gehienak Euskal Herrikoak eta kanpoan euskal irudigileen harrobia oso ongi ikusia dela esaten digute askotan. Irudikak ere lagun du du horretan. Den dena ez dago gure esku. Erakundeetatik lagundu beharko lukete gehiago. Gurea aldizkako lana da eta hori oztupo handia da %100ean horretara dedikatu ahal izateko. Kotizazioak, gizarte segurantzaz... dena ordaintzea oso zaila da guretzat.



Prekariatatea oso orokortuta dago?

Bai, free-lance guztiek badakite oso ondo zer den aldizkako lana. Horregatik denok saiatzen gara gutxienez lan finko bat izaten, nahiz eta xumea izan, autonomoen kuota eta etxea ordaintzeko. Nik, adibidez, gastu finko gehiago ditut hilabeteko sarrerak baino, eta beti ibili behar dut malabarrak egiten. Enkargu txikiak liburuekin konbinatu behar ditugu. Ilustratzaileentzat liburuak egitea politena da, baina normalean gaizkien ordaintzen dena. Prestigio gehien, baina diru gutxien ematen dirguna da. Horregatik hamai-ka tokitan lanean gabilta, ahal bezala.

Orain arerio berri bat duzu: Adimen Artifizial sortzailea. Arinkeriaz hartzen ari gara kontu hau?

Bai. Hala izatea nahi dutelako. Gehien haserretzen gaituena da hori dena enpresa pribatuetatik sortu dela, eta enpresa horiek sortzaileen kontura ari direla aberasten. AAk sektore sortzaile guztiei eragiten die. Toki guztietan hitz egiten da AAz moda bat balitz bezala eta erakundeek, udalek... nahi dute moda horretara igo. Azaleko informazioa eta arinkeria horrek kalte egiten digu. Botoi bat sakatzea eta obra

bat sortzea ezerezetik, nondik dator? Abusu batetik dator. Software enpresa horiek materiala lapurtzen dute Interneten. Erauzketa-meatzaritza egiten dute. Harrapatzen dituzten irudiak datu bihurtzen dituzte gero saltzeko. Ustezko eduki berri horien egiletza eskubi-deak, gainera, ez dira erabiltzailearenak, softwarearenak baizik. Abokatuak eztabaidan ari dira gaur egun argitzeko nor den egile legala. Esaten dute jatorrizko ordenagailua dela, baina zein da hori?

“ Softwarea entrenatzeko erabili dena edo hori instalatzen duen erabiltzailearena?

Nire liburu guztiek prezio bera dute: 25 euro. Beti saiatzen naiz jendeak liburuarengatik aukeratzea eta ez prezioari begira”

Jende guztiari esan behar diogu, argi eta garbi, hau arautzen ez den bitartean sortzaileoi galdetu behar digutela ea makinaren entrenamendu honetan parte hartu nahi dugun, eta gure lanak erabiltzeko ordaindu eta gure izena aipatu behar duela. Modu horretara egin den “obra” hori beste hainbat lanaren nahasketatik dator. Gure eskakizun hauek ez dira betetzen ari eta bitartean ikusten ari gara nola hainbat udal, azoka eta erakundetan ari diren software horiek erabiltzen zerbat super dibertigarria balitz bezala. Ahoa kulturaz betetzen zaien bitartean, sortzaileak babesik gabe uzten ari dira.



Azken hitza

KOPIAREN KOPIA

“Kapitalismoan bizi gara eta AA sartu digute emaitzak eta irabaziak azkar lortzeko. Sortzaileak bazterrerara bultzatzen ari dira, eta horrekin zer lortuko da? On-line meatzaritza erabiltzen duten softwareak erabiliz, gero eta nahasketa-material gehiago dago Interneten. Kopiarren kopiak, gero eta eskasagoak. Hori kultura-sorkuntzaren amaiera izan daiteke.

AA sortzaileaz etorkizuneko tresna dela esaten da, baina bere funtsa da iraganeko sormen lanak lapurtzea. Ez da ez erreminta ezta etorkizuneko ere. Esperimentazioa bai dela etorkizuna, baina prozesu horiek babesteko eta behar den denbora bermatzeko, sortzaile moduan irauin egin behar dugu”.

Off the record

LIBURUEN BIZI LABURRAZ

“Historian funtsezko aldaketarik izan ez duen gauza gutxi dago, eta horietako bat da liburuak. Orain liburuak azkarregi egin eta saldu nahi dira eta hori ez da ona. Liburuak denbora gutxi egin da dendetan eta saltzen ez direnak biltegi batera eramane edo suntsitu egiten dituzte. Lehen erretzen ziren, orain paper pasta egiten da. Gastu horrekin kontaktzen da prozesuaren hasieratik. Dendetan denbora gehiago mantentzerik balego, gutxiago suntsituko ziren, baina produkzio ikaragarria dago. Alde batetik ona da zenbat eta ahots gehiago izatea, baina sistema honekin sortzaileak gara galtzen dugunak. Ikaragarritzko lana egin ondoren, hilabete gutxitan asko saldu behar da diru pixka bat kobratzeko”.

Denok moldatu behar izan dugu digitalizaziora, ados, baina hortik eskubideak urratzera eta intrusismoari ateak irekitzera bada aldea.

Legeek zer diote?

Legerik ez dago, soilik aholkuak. Duela hilabete pare bat Kultura Ministeriotik Adimen Artifizialaren praktika onen gida bat atera zuten oso intentzio onarekin, baina oso erredakzio txarrarekin, nolabait esateagatik. Azkenean, esaten zutena zen erabilpen partziala egin daitekeela, baina ez osorik. Nola ulertzen da hori? Pirateriaren garaian ez zen esaten pirateatzen ahal duzula kontsumitzen duzunaren erdia eta beste erdia ez, adibidez.

Desberdindu behar da AA orokorra eta AA sortzailearen artean. AA egon daiteke programa batzuen barruan, Photoshop edo InDesign, adibidez, baina hori ez da arazoa. Horiek tresnak dira: zuk sartzen duzu zure lana eta zuk zeuk moldatzen duzu nahi duzun bezala. AA sortzailea, aldiz, beste gauza bat da, zureak ez diren edukiak baimenik gabe hartu eta nahi duzun bezala erabiltzen dituzulako. Irudirako Midjourney edo testuetarako Chat GPT, esate baterako, lapurretatik elikatzen dira. FADIPetik Kultura Minis-



terioko ordezkariekin hitz egin dugu eta orain ari dira testu berria idazten.

Sortzaileei irakasle lana egitea egokitzen zaizue?

Irakasle izateaz gain, AAren Polizia ere izan behar dugula dirudi, eta ez da batere atsegina. Erakundeekin hitz egiten dugu maiz, baita sortzaileekin ere. Europa mailan beste zenbait irudigile elkarterekin ari gara elkarlanean, eta motel bada ere, zeozer lortzen ari gara.

Lankideen artean ere lan handia egiten ari gara. Batzuetan kostatzen zaigu azaltzea AA ez dela erreminta bat, erreminta batek ez dituelako eskubideak urratzen. Mailu bat edo edizio digi-

talerako programa bat erremintak dira, baina ez hau. Bestalde, egile batzuek uste dute jolasteko zerbitu dela, intentzio txarririk gabe.

Egileok badakigu nola defendatu honen aurrean. Badira moduak zure lanaren lapurreta saihesteko, irudietan jar daitezkeen bernizak, adibidez, baina hori lan eta gastu gehigarri bat da guretzat.

Lehiaketa publikoetan, adibidez, zer litzateke onena?

AA sortzailea ez erabiltzea ezinbesteko baldintza izatea. Horretarako zinpeko aitortpena eska liteke, beste lan baten plagiorik egin ez dela zin egitea eskatzen den bezala. Egiletza eskubideak urratzen dituen softwarerik ez dela erabili adierazi beharko lukete parte hartzaileek. Arazoa bikoitza da, ordea: halako deialdiak egiten dituzten askok ez dakite ezer horretaz eta beste batzuei, aldiz, interesatzen zaie halako lanak egotea haien deialdietan.

Artistak babesteko beste modu bat lehiaketetarako dosierak eskatzea da, eta ez amaitutako kartelak. Horrela, lana duintasunez ordaintzen da, eta eredu gisa sortutako irudietatik abiatuta aukeratzen da, doako lana sustatu gabe. ●



GIPUZKOA BERTSOTAN

24

1^o FASEA

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

<p style="text-align: center;">Apirilak 25</p> <h3 style="text-align: center;">ESKORIATZA</h3> <p style="text-align: center;">Zaldibar Antzokia</p>	<p style="text-align: center;">Maiatzak 2</p> <h3 style="text-align: center;">ALTZO</h3> <p style="text-align: center;">Batzarremuño Eraikina</p>	<p style="text-align: center;">Maiatzak 9</p> <h3 style="text-align: center;">GETARIA</h3> <p style="text-align: center;">Iturzaeta Aretoa</p>
<p style="text-align: center;">Apirilak 26</p> <h3 style="text-align: center;">GABIRIA</h3> <p style="text-align: center;">Eliza ondoko aretoa</p>	<p style="text-align: center;">Maiatzak 3</p> <h3 style="text-align: center;">LEGORRETA</h3> <p style="text-align: center;">Antzokia</p>	<p style="text-align: center;">Maiatzak 10</p> <h3 style="text-align: center;">ANOETA</h3> <p style="text-align: center;">Mikelasagasti Kulturgunea</p>
<p style="text-align: center;">Apirilak 26</p> <h3 style="text-align: center;">ZESTOA</h3> <p style="text-align: center;">Kultur Etxea</p>	<p style="text-align: center;">Maiatzak 3</p> <h3 style="text-align: center;">ORIO</h3> <p style="text-align: center;">Kultur Etxea</p>	<p style="text-align: center;">Maiatzak 17</p> <h3 style="text-align: center;">OÑATI</h3> <p style="text-align: center;">Santa Ana aretoa</p>

Antolatzailea:



Laguntzailea:





Etxebizitza arazoa eta lan-mundua

Etxebizitza duina izatea gero eta zailagoa da. Berdin du esaldi hori noiz irakurtzen duzun, urteak pasa eta arazoa gero eta larriagoa da.

Nola izan daiteke bizitzeko oinarritzkoa den eskubidea, teoriaraino hainbat legek babestutakoa, EAEn eskubide subjektibo moduan onartu berri dena, errealitatearen aurrean ezerezean geratzea? Botereek eskubide gisa onartzen dutenean, lan indarra birsortzeko elementu gisa babesten ari dira. Baina, aldi berean, salgaia eta inbertsio ondarena da, eta horien arteko talkatik sortzen dira etxebizitza politikak, elementu horiek guztiak orekatu nahian. Sektore publikoak sustatutako etxebizitzak eta alokairu erregulatuak, eraikuntza eta finantza sektoreen interesak, errentatzaileak; hainbat indarren arteko hartu emanetatik azken hamarkadetakoa egoera azal dezakegu.

Alokairuen kasuan, soldaten aldean, prezioen igoera izugarria jasan dugu. Horri gehitu behar zaio alokatzeko eskakizun zorrotzagoak daudela, errentatzaileek egindako inbertsioaren arriskua txikiagotzeko. Erosketaren aldetik, bestetik, Atzeraldi Handiaren ostean, finantza erakundeek eskuratzeko malmuak ziren hipotekak eten zituzten. Gainera, egiten ari diren erosketen parte hazkor bat eskudiruz izaten ari da, hipoteka barik. Azken kasu horrek modu argi batean azaltzen du eroslearen klase jatorria.

Sindikalismoa etxebizitza arazoaren ezinbesteko aktorea da: horrela azaltzen da etxebizitza mugimenduak hartutako izena

EAeko hauteskundeetan ere hainbat etxebizitza politika mahai gaineratu dira. Proposamen batzuk dirulaguntzen inguruan zentratu dira, errentatzaileek guztion diruz bereganatuko dituzten laguntzak babestuta; baita etxebizitza eragileen mesedetarako berme publikoen eskaintzak planteatuta ere. Beste batzuk, berriz, funts putreei atek ixteari buruz, alokairua sustatzen duten programak ezartzeari buruz eta etxebizitzarako sarbidea errazteko inbertsio publikoari buruz hitz egin dute.

Politika instituzionaletik etxebizitza arazoari heltzea beharrezkoa bada, ez da nahikoa. Neurri horien mugak agerikoak dira, eta ez dute gako nagusia lantzen: lan merkatua. Lana galtzen baduzu, edo modu prekarioan bizi bazara, diru-sarrerak gastuak ordaintzeko ez bazaizkizu heltzen, etxebizitza arazoak izango



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

dituzu. Maiz, etxebizitza sindikatuei laguntza eskatzen dietenek kaleratzea edo iraupen luzeko ezintasun bat jasan dute lehenago.

Etxebizitza mugimendua beharrezkoa da, baina, oro har, krisiaren ondorioak lantzen ditu (alokairu arazoak), eta ez horren iturria (lan arazoak). Horregatik, etxebizitza arazoan sindikalismoaren garrantzia azpimarratu beharra. Sindikalismo eraldatzaileak klase-antolaketa handi bat eraikitzea proposatzen du, eredu ekonomikoa eraldatzeko (zer ekoiztu, zertarako, zerekin, norekin, zeren kontura...), lan-merkatuaren kontrola berriro mahai gainean jartzeko. Ikuspegi horren ondorioz, etxebizitzaren gaia lantzeak beste zentzu bat du.

Noski, aurreko hori lortzen ez den bitartean, sindikalismo horrek beste jardura batzuk egitea beharrezkoa du. Bai etxebizitza mugimendua babestea, aholkularitza juridikoak edo sindikalak sustatuta, negoziazio kolektiboan arazo integratuta eta enplegu eta etxebizitza arazoak lotuta, baita etxebizitza merkatutik kanpo uzteko neurriak proposatuta eta babestuta.

Beraz, sindikalismoa etxebizitza arazoaren ezinbesteko aktorea da: horrela azaltzen da etxebizitza mugimenduak hartutako izena. Erantzun globala eta sistemikoa behar dugu, beste balio batzuen arabera gizarte bat eraikitzea beharrezkoa baita. Sindikalismoa, eraldatzailea dena, funtsezkoa da. ●

Ez da zapalkuntza?

Orduan, asimilazioa



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

PAULA ESTÉVEZ

Hezkidezarekin lotutako proiektuak koordinatzeko lankideekiko bilera batean, mutiko batek ikaskide neska bati irain matxista bota diolako gertakaria kontatu zuen irakasle batek, zalantza sortu zitzaiolako egoki jokatu ote zuen, eta gure artean hausnarketa interesgarria sortu zuen.

Irakasleak kontatu zuen diskurtso feminista irmoa erabiliz egin ziola aurre irakasleari, horrelakorik onartzen eta onartuko ez zuela tinko -baina maitasunez- adieraziz, eta zuzen jokatu ote zuen kezka duela orain, geroztik irakasleari ez diolako berak horrelako jokabiderik antzeman, baina badakiela ez dela benetakoa iraklearen jarrera aldaketa, bere aurrean baizik ez omen baitio horrela jokatzeari utzi, kontatu diotenez. Iraklearengandik jokabide horiek erauztea baino gehiago, lortu zuena ez ote zen bere begietatik kanpora bidaltze hutsa izan, ez ote dion horrela bere balizko esku hartze bati atea itxi. Ez ote zen hobeki hain zorrozki aritu ez balitz.

Nik argi dut kontua. Egiturazkoak diren zapalkuntzen ondoriozko adierazgarriekin ez da epeltasunik erakutsi behar, marra gorriak direla jakin beharra dutelako. Muga bat garbi ezartzeak ez du, gainera,

gaiaren bestelako lanketa hezigarrien aukera eragozten, baina zentzua izango badu, eta koherenteak izango bagara, zorrotz eta irmo ezarri beharra dago muga. Dena den, gogoan izan behar dugu hezitzaile moduan dugun eragin-gaitasuna ere mugatua dela, sarri zapuzten baikara gure lanak ematen duen fruitu eskasarekin.

Kontua da adierazi nuela iraklearen batek erdaraz egiten zidanean nik ere halaxe jokatu ohi dudala, gustua egiteko batere asmorik gabe, niri euskaraz egiteko exijituz, erdaraz ez ezik harrokeriaz, edo euskararen kontrako mespretxuz egiten baitute batzuek, batzuetan. Ondorengo komentario batzuek, orduan, zer pentsatua eman zidaten. *Ezin direla bi kontuak konparatu, hizkuntzarena ez dela gisa berekoa, hor ez dagoela indarkeriarik, eta bla bla bla.* Betikoa.

Feminismoak ideologia oso bat garatu du, emakumeontzako gida bat eskaintzen duena arazoa izendatzeko, ulertzeko, kokatzeko, aurre egiten jakiteko, zapalkuntza zipriztinik txikienak ere identifikatzen jakiteko, eta ahalduntzeko. Eta eskertu egiten da ideologia batek ez duelako berez askapena ekartzen, baina emantzipazio psikologikoaren lanean ezinbesteko abiapuntua eta babesa baita.

Zer gertatzen da, ordea, euskal zapalduokin? Pairatzen dugun gatazkari buruzko ideologia hegemonikoak kanpoan utzi du zapalkuntzaren kontaketa, horrek dakartzan ondorioekin. Hizkuntzaren auzian ikusten da nabarmenen, euskaldunon bereizgarri nagusia delako, eta herriaren pultsuaren neurria ere ematen digulako, hortaz. Bada, egiten den diagnostiko okerrean, eta proposatzen zaizkion soluzio inozoetan, kezkatzekoa da oso herri honen inboluzio ideologiko larria.

Erdara ez da jada zapalkuntzaren sintoma gisa hartzen, denok dakigulako erdaraz (zergatik ote?) eta hizkuntzak beti onak direla dioen ideologiak *abduzitura*, hizkuntza batean etsaitasunik egon ez daitekeela sinestera iritsi garelako. Baina menderakuntzaren ordez hor kultur aniztasuna besterik ikusten ez duten horiek, nola azaltzen dute aniztasun hori Euskal Herriaren alde honetan hain espainol kolorekoa izatea, eta hain frantsesa bestean?

Zapalkuntza ez sentitzea jauzi kualitatiboa da asimilazio prozesuan, espainol(-tasun)a edo frantses(tasun)a geure egiten ari izanaren ondorioa, horrela, hain gozoki. Hain erraz lortzen utziko diegu? ●

Mecaner ez itxi!



IÑAKI BARCENA
EKOLOGISTAK
MARTXAN ETA
EKOPOL-EKO KIDEA

Euskal autogintzaren industrian gertatzen ari den adibide esanguratsu batekin natorkizue. Duela urte erditik (2023-09-01), Mecaner Urdulizko (Uribe Kosta) autogintzako trokelgintza enpresako 148 langile euren lanpostuak galtzeko zorian daude. Enpresa bideragarria da eta produkzio eskariak ditu, baina Stellantis automobilgintzako multinazionalak lantegia ixtea erabaki zuen, produkzioa Txinara eramateko.

Stellantis. Multinazional erraldoi horrek hiru talde ditu bere barnean: FCA Italy (Fiat, Abarth, Alfa Romeo, Lancia, Maserati...) FCA US (Chrysler, Dodge, Jeep, Ram Trucks...) eta Groupe PSA (Peugeot, Citroën, DS Automobiles, Opel, Vauxhall Motors...). Bai, auto marka horiek guztiak korporazio multinazional bakar baten eskuetan daude. Euren datuen arabera, 281.595 langile zituen 2021eko abenduan eta urte berean 15.428.000.000 euroko irabaziak aitortu zituen. Diru gehiago irabazteko, Stellantis-ek Mecaner itxi nahi du, langile batzuk beste lantokietara bidali eta kaleratzeak kalte-ordainekin konpondu. Merkatuaren lege gordina!

Alternatiba ekosoziala. Enpresa komiteak Urdulizko Udalarari (EH Bildu) eskaria egin zion ikerketa bat egiten laguntzeko, enpresaren bideragarritasuna aztertzeko irizpide ekosozialekin. Helburu garbi horrekin, langileen etor-

kizuna eta eskualdeko enplegu duin eta iraunkortasun sozial eta ekologikoaren aldeko apustua egin da.

Produkzio eraldaketa baten aldeko plana (ikus: garuacoop.es/plan-de-transicion-ecosocial-para-mecaner/) gauzatzea ziur ez dela erraza izango, baina esperientzia eredugarria izan daiteke oso, etorriko diren beste gatazka industrialen aurrean. Alternatiba ekosozialak produkzio-prozesua eraldatzea dakar. Idatzitako planak lau produktu desberdinen aukerak ematen ditu. Horretarako makineria egokia, langileen prestakuntza eta kapitala (publiko zein pribatua) beharrezkoak dira... baina, batez ere, indar sozial nahikoa, plan alternatibo hori bultzatzeko.

Trantsizio ekosozialak eragileen arteko lehia dakar. Eta egun gertatzen ari den aldaketa multinazionalak eta elite ekonomikoak gidatzen ari dira, kapitalaren logikan eta gizartearen gehien goaren aurka. Horregatik, mugimendu sindikal eta ekosozialen arteko aliantza indartsua eratu beharrean gaude, administrazio publikoei eta agintari politikoei eskatzeko planaren babesa egin dezaten. Batzuek esango digute hori “merkatu eta kapitalismoaren logikan jarraitzea” dela, baina etorkizun justuagoak irudikatu eta metamorfosi ekosozial justuagorako norabidea posible dela erakusteko urratsak ematea ezinbestekoa dugu. Mecaner ez itxi! ●

Palestinaren aldeko unibertsitate-sarea



ARANTZA GUTIÉRREZ
EHU-KO IRAKASLEA

EHUk Tel Aviv-eko unibertsitatearekin etorkizuneko lankidetzarako bideak ahalbidetzen dituen ziberseguertasuneko katedra bat sortu izanaren harira, bertako langileok interpelatuak izan gara hainbat lekutatik, eta esan beharra dut neurri handi batean lotsatuta sentitu naizela, erabaki horrekin zerikusirik ez dudan arren. Eta lotsa hori gehitu zaio isiltasunaren aurrean dagoeneko sentitzen nuenari. Izan ere, urriaren 7tik aurrera, Israelek etengabe eraso ditu Palestinako unibertsitateak eta ikasguneak, nazioarteko legeak gune zibil babestu gisa izendatuta dituen arren, eta ehunka zenbatzen dira eraildako ira-

kasle, zientzialari eta akademikoak, eta milaka asasinaturiko ikasleak.

Horren aurrean asko kostatzen zait ulertzea akademiatik, hezkuntza komunitatetik, oro har, eman den erantzun apala, zeinak agerian utzi dituen, berriz ere, gerra eta biktimen arteko ezberdintasunak. Espainiako Estatuko hainbat unibertsitateko ikasle eta langile saretu gara Palestinaren aldeko aldarri bateratuan, eta argi eta garbi esaten diegu gure agintariei ez dugula genozidioaren konplize izan nahi –ezta omisioagatik ere–, eta Israelgo Estatuari laguntzen dieten erakunde eta enprekin harremanak eteteko eskatzen diegu. ●

Existitzen ez den herria



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

“Ez den herrian sortu ginen, eta geu ere, esan gabe, konprenitzen da ez garena gara”, Joseba Sarrionandia.

Askotan, nire buruari galdetzen diot zer gertatu ote zen Alemaniako jendarteak nazismoaren ondorioak ezagutu zituenean, hau da, horrelako komunitate jantziak eta tolerantak nola onartu zuen, bat-batean, bere izenean pertsona ugari hiltzea.

Juan Irigoyenek, bere blogean, Gunter Andersen-ek 1956an idatzi zuena birgoratzen du: “Edozein matxinada aldeztu aurretik itzaltzeko, batez ere ez duzu era bortitzean jokatu behar. Metodo arkaikoak, hala nola Hitlerrek erabilitakoak, erabat zaharkituta daude. Egun, baldintzapen kolektibo indartsua baizik ez da sortu behar matxinadaren ideia bera jendearen burutik ere ez pasatzeko”. Eta horixe da gaurko errealitatean ikusten ari garena: genozidio baten aurrean ez gara gai ezta horren aurkako matxinada txiki bat antolatzeko ere, jendearen erantzuteko gaitasuna erabat deuseztatuta baitago.

Zer pentsatuko dute Gazan edo Kongon, hemendik ehun urtera, Euskal Herriak (existitzen ez den herria) genozidioen aurrean egin zuenari buruz? Egiten ditugun mobilizazioak gogoratuko al dituzte? Oraingo Gazako umeek, hemen-

Zer pentsatuko dute Gazan edo Kongon, ehun urtera, Euskal Herriak (existitzen ez den herria) genozidioen aurrean egin zuenari buruz?

dik hoge urtera bizirik baldin badaude, jakingo al dute Pirinioetako bi aldeetara dagoen herriak defendatu eta maitatu zituela, haiek gogoratu aurre egin bitartean?

Pesimista naiz. Nire ustez, hemendik urte batzuetara inork gutxik jakingo du euskal herritarrok zer egin genuen Gazako edo munduko beste sarraski batzuei aurre egiteko. Izan ere, azken finean, nazioarteko kontzertuan ez daukagu ahots propiorik: Sarrionandiak dioenez, ez garena gara.

Hala ere, gure ordezkariak txoko bat izan nahi dute Espainiako instituzioetan. Madrilgo Kongresuak –zirku kalapitatsu bihurtuta– euskal politikariei giroa pixka bat epeltzeko aukera ematen die, noizean behin bada ere, besteek elkarri irain egin bitartean. Errealitatea aldatzeko ez da

oso leku eraginkorra, baina, behintzat, hemengoek heziera ona erakusten dute.

Egia da, baita ere, existitzen ez den herriaren bozeramaleek gauza larriak entzun behar dituztela bertan. Esate baterako, Defentsa ministroak Errusiaren aurkako gerrari buruz iragarri du, besteak beste, gastu militarra igoko dutela 24.000 milioi eurora (NATOk exijitzen zuen BPGren %2 baino gehiago); edo, beste adibide bat: Europar Batasuneko beste estatuekin batera Espainiak sinatu duen “berehalako etenaldi humanitarioaren eskaera” Palestinarako. Ursula von der Leyen-ek eta Pedro Sánchezek, berriz, irribarrez argitu dute “etenaldia ez dela su-etena”; gainera, are larriagoa, Israeli armak saltzen jarraituko dute inolako lotsarik gabe.

Baina amets dezagun minutu bakar batez bada ere. Imajina dezagun gure ordezkari politikoak aipaturiko “baldintzapen kolektibo” gainditzeko gai direla eta hordago bat egiten diotela Sánchezen gobernuari: Madrilen ematen dioten babes parlamentarioari eusteko apustua igoko dutela, eta Israelekin harreman politiko eta ekonomikoak bertan behera uztea exijituko diotela. Agian, existitzen ez den herriak ez dauka hainbesteko indarra Israel estatu erraldoi eta krudelaren aurka aritzeko... baina saiatzea kolosala izango litzateke, ezta? ●

43.
LIZARDI
SARIA

o Euskarazko haur literatura sustatzeko.

o Lanak aurkezteko epea: 2024ko uztailaren 14a.

Informazio gehiago: www.zarautz.eus


ZARAUZKO UDALA


LIZARDI SARIA

. BERTSO SAIOA . DANTZALDIA . KONTZERTUAK . ASKARIA . MERKATUA . DESFILEA . LARRAIN DA

ASKARIA . MERKATUA . DESFILEA . LARRAIN DANTZA . BAZKARIA . HAURREN XOKOA . TXARANGAK . DANTZA IKUSGARRIA

NTZA . BAZKARIA . HAURREN XOKOA . TXARANGAK . DANTZA IKUSGARRIA . BERTSO SAIOA . DANTZALDIA . KONTZERTUAK

NAFA RROAREN eguna



2024.04.28
BAIGORRI



BASAZEA
Kultur Batasuna



ARGIA berria



LURRAREN DEFENTSAN MOBILIZAZIOA

“EZ DA TRANTSIZIOA, ESPEKULAZIOA DA”



Euskal Herria Bizirik sareak antolatuta eta 84 eragilek deialdiarekin bat eginda, 2.200 pertsona manifestatu dira "Lurraren defentsan" Azpeitian, apirilaren 13an. Goizean bertaratu direnek lau tailer eta mahai-inguru baten bidez aztertutako zein diren berdez margo-

tutako makroproiektuek lurraldean eta Lurrean eragiten dituzten kalteak, eta zein den bilatzen duten azken helburua. Borrokan jarraituko duela berretsi du Euskal Herria Bizirik sareak eta hurrengo hitzordu nazionala iragarri du: Koltiza mendira martxa, maiatzaren 26an.

Saño Bizirik", "Mendiak aske", "AHT gelditu", "Erdiz bizirik", "Aroztegia gelditu", "Mendietan ez" eta antzeko pankartzak jantzita aurkitu du Azpeitia apirilaren 13an bertaratu denak. EAEko hauteskunde bezperetan egindako mobilizazio egun honen bidez, "lurraldeari eta landa-eremuari eraso egiten dioten makroproiektueko arbuio sozial zabala erakustea" izan du helburu Euskal Herria Bizirik sareak.

Goizean lau tailer egin dituzte aldi berean: *Euskal feminismoa Lurraren defentsan*, batetik; *Krisi ekosozialaren testuinguruan agroekologiatik datozen ekarpenak lurreratzen*, bestetik; *Biodibertsitatearen galera: kausak eta ondorioak*, hirugarrenik; eta *Trantsizio energetiko korporatiboa eta megaproiektuak*, azkenik.

Eguedian guztiak elkartu dira areto berean, Aragoiko (Plataforma de defensa territorio Cincovillas) eta Galiziako (Ecoloxistas Galicia Atlantica e Verde) militante banaren esperientzia entzuteko.

Goizean egindako hitzaldi, tailer eta mahai inguruek balio izan dute herritarren informatzeko eta elkarrekin

hausnartzeko: "Bakarra balitz moduan saltzen diguten trantsizio energetiko eredu hau" (hori da hainbat hizlarik nabarmendu duten ideia) eraginkorra al da herritarren aurrean argudio gisa azaltzen dituzten helburuak lortzeko? "Berdez margotutako" trantsizio honek zein logikari jarraitzen dio? Energiaren sektoreko enpresen eta ate-birakariz horiekin komunikatuta diren kargu politikoaren helburuak bateragarriak al dira herritarren beharrak asetzearekin? Eta publikotik gazte batek galdetu duen gisa, "Lurrarentzat zauri diren proiektu hauetako bakoitzari aurre egiteaz gain, ez al dagokigu pentsatzea hauen denen erroa den sistema kapitalista nola eraitsi? Makroproiektuek izango al dute amaierarik bestela?".

Edukiz betea izan da egunaren lehen zatia eta bazkaritan, ehundik gora lagunek indarrak hartu dituzte Saño Bizirik taldekoek inguruko baserriaren jeneroarekin prestatu duten otordu ederrarekin. Egunean zehar ikusgai egon da Euskal Herriko hamaika ilustratzailearen lanak biltzen dituen *Hamaika arrazoi lurraldea defendatzeko* erakusketa artistikoa.

"BAKARRA BALITZ MODUAN SALTZEN DIGUTEN TRANTSIZIO EREDU HAU HILDA JAIO DA"

Lau tailerretako bat hautatu beharren penaz sartu da idazten ari den hau *Trantsizio energetiko korporatiboa eta megaproiektuak* izenburua zuenera, eta bertan Álvaro Camposen hitzaldiarekin egin du topo, zeinak Sustrai Erakuntzako Martintxo Zelaia izan duen lagun. "Trantsizio honi ezetz esaten diogunean, ez gara ari trantsiziorik behar dugun ez-baia jartzen. Esaten ari gara da ez dugula horrelakoa nahi, bestelako bat behar dugula eta martxan dagoen trantsizio horrek ez gaituela inora eramango", ekin dio Camposek. Eta jarraitu du: "Energiaren Nazioarteko Agentziaren (ENA) datuak aintzat hartuta, ez dago behar beste materialik trantsiziorako agendak planteatzen ari direna betetzeko beharko lireratekeen azpiegitura berriztagarriak eraikitzeko. Horregatik, hilda jaiotako den trantsizioa da. ENAk igortzen duen mezua da herrialde bakoitzak bermatu ditzala behar dituen bideak, bere trantsizioa egiteko materialak eskuratzeko. Horrek ateak zabaltzen dizkio tentsio handiko eszenatoki geopolitiko bati".





Camposek azaldu du energia fosilek eta berriztagarriek ezaugarri oso ezberdinak dituztela. Petrolioia "indar kondentsatua" dela adierazi du, upeletan garraiatzeko erraza eta kontzentratzeko gaitasun handia duena: "Bai botereak, bai erabakiak eta bai irabaziak kontzentratzeko gaitasun handia dauka, eta hori oso lotua dago kapitalismoaren izaerarekin. Uste dut ez legokeela kapitalismorik, energia fosilek ematen duten gaitasun hori gabe. Fosilek ahalbidetu dute egitura sozioekonomiko globalizatua eraikitzea, eta horrek historian ez du parekorik". Berriztagarrien ezaugarriak bestelakoak direnez, horrek "dena aldatzera" eraman behar gintuzkeela argudiatu du: "Intermitenteak dira, ezin dugu erabaki energia berriztagarrien sorgailuak noiz piztu eta zein potentziantan. Askoz energia eta potentzia gutxiago izango ditugu. Lurraldean banatuta daude energia berriztagarriak eta askoz zailagoak dira garraiatzen". Baina badute abantaila bat: modularrak dira, eskalatu daitezke. Camposen arabera, horrek aukera ematen die herritarrei elkartzuta beraien beharrak asetzeko energia sorgailuak martxan jartzeko eta ku-

deatzeko, beraiengandik gertu eta haien neurriko eskalan: "210 metroko zentral eoliko bat kapitalari oso funtzionala zaion modu bat baizik ez da, baina hori ez da haize-errota bat ulertzeko dagoen modu bakarra".

Ondoren azaldu du nola dagoen antolatuta energia sistema. Arbelean egin duen eskeman, alde batean irudikatu ditu energia ekoizleak: "Oso gutxi dira, 10-15 promotora guztira. Lehendik fosilekin ari zirenei orain eraikuntzatik etorritakoak batu zaizkie, eta funts putreak. Horientzat berriztagarrien megaproiektuak erreminta finantzarioak dira, eta azken helburua dute (diskurtsoek diotena diotela) kapital kopuru handi bat pixka bat handiago bihurtzea. Eta horretarako, betiko formula espekulatiboak erabiltzen dituzte. Trantsizioa zuzentzen ari den kapitalarentzat auzia da zenbat diru atera dezakeen, eta zenbat eta gehiago, hobeto". Camposek azaldu du enpresa horiek ekoizten duten energia tentsio altuko sarrera isurtzen dutela, eta isurtzen duten kopuruko kobratzen dutela, une horretan argindarrak duen prezioaren arabera.

Arbelean marraztu duen eskeman erdialdean ageri da tentsio altuko sa-

rea. Jarraitu du azaltzen goi tentsioko sarea 1997ra arte publikoa zela eta orduan liberalizatu eta Red Electrica de Españaren jabeago izatera pasatu zela. Egun, erakunde hori %80an pribatua da eta %20an kontrol publikokoa: "Liberalizazioaz geroztik, salbuespenik gabe, Red Electricako lehendakaria izan da bai PSOEn edo bai PPreu gobernuari lotutako norbait. Egun, Beatriz Corredor da, Jose Luis Rodríguez Zapateroren garaian Etxebizitza estatu idazkaria izan zena", ohartarazi du Camposek, ate birakari nagusietakoa dela seinalatzeko. Red Electrica de Españak proposatuta eta Espainiako Gobernu Kontseiluak onartuta, goi tentsioko sareak energia garraiatzeko duen gaitasuna etengabe handitzen ari direla azaldu du: "Eta horrek ez du mugarik, azken helburua irabaziak sortzea baitu (Ibex 35ean kotizatzen duen enpresa gutziziatuenetakoa da)". Gainera, goi tentsioko sareak energia gero eta kontsumitzaile gehiagori saldu diezaion, Europako merkatuak integratzeko lanean ari dira, Camposen esanetan: "Adibide lazgarriena Gatika-Bordele itsaspeko interkonexioa da. 2017an ezagutzera eman zutenean ez

genuen ulertzen zertarako nahi zuten. Orain ikusten da lurraldeak espezializatu nahi dituztela eta Iberiar Penintsulari tokatu zaiola energia berriztagarrien hornitzailea izatea, nahiz eta hain sare handiak oso eraginkortasun txikia duen, bidean energia asko galtzen baita".

Arbelean marraztua duen eskemara itzulita, seinalatu du tentsio altuko sarearen ondoan azpiestazioak daudela, eta horiek egiten dutela lotura tentsio baxuko sarearekin. Hain justu, behe tentsioko sare horretara daude lotuta herrietarrak eta enpresak. Camposek orotarazi du sistema elektrikoa liberalizatu zutenean, guztion diruarekin eraikitako behe tentsioko sarea Iberdrolari "oparitu" ziotela. Sare hori espropiatzeko edo kontrol mekanismoak jartzeko argudioak eman ditu, izan ere, bere ustez, behe tentsioko sarea gakoa da beste era bateko trantsizioa egiteko, sare horrek aukera zabaltzen baitu herritarrek burujabetzarantz bidea egin dezaten. Nola? Beren lurraldeko beharrak eta baliabiak aztertuta eta kontsumituko den lekuetatik gertu neurri txikiko energia sorgailuak jarrita. Baina zera iragarri du: "Hasten bagara herri batean serio lan egiten, energia bertan sortzen eta

behe tentsioko sarera isurtzen, handik gutxira esango digute sare horretan ez dagoela gaitasunik hainbeste energia hartzeko, bitartean tentsio altuko sarearen gaitasuna handitzeko milioika euro inbertitzen ari direnean. Zergatik ez da eredu horretako trantsizioa bultzatzen? Hor jende asko sartu gaitezkeelako energia ekoizten eta makroproiektuetan ez". Behetik eraikitako burujabetzaren eta energia gutxiago kontsumitzearen artean dauden loturak aztertu ditu; "aldiz, korporazioen trantsizio honetan alderantzizko mezua ematen diote gizarteari, betiko moduan kontsumitzen jarraitu ahalko dugula".

GALIZIATIK ETA ARAGOITIK IRAKASPENAK

Aragoiko eta Galiziako esperientziak partekatzeko mahai inguruan, Nery eta Jose Luisen ahotsean entzun ahal izan da herrialde horietan pairatzen ari direna. Aragoi kontsumitzen duten argindarraren %150 sortzen dute, Galizian badira herriak bi biztanleko haizeerrota bat dagoena... Haien lurraldeak makroproiektu berriztagarritz josten ikusi dituzten bi kideek zera azaldu dute: "Ez da trantsizioa, espekulazioa

da. Herritarra bere herrian egingo duten proiektuari begira jartzen da, baina ezin du irudikatu ere egin zer olatu datorkion lurralde osora. Horregatik, borrokak batu behar ditugu eta osotasunaren ikuspegia izan".

Nery ahobizarrik gabe mintzatu da Galiziako esperientziatik: "Oposizioa herritarrok egin behar dugu eta dirurik gabe. Dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarteak ez dira libre, beti mugatuta daude. Ez nago alderdi politikoei begira, zeren gehienez ere proiektu zehatz baten aurka agertuko dira, baina aldi berean, beste nonbaiteko proiektua justifikatuko dute... Udalek militanteak despistatzeko esango dute 'alegazioak sartu ditugu...', baina ez da aski: udalak nahi ez badu, bere lurretan ez da proiektua egiten; aski dute enpresari baimenik ez ematea edo enpresaren eskaera mezuak erantzun gabe uztea. Dirua da arazoa, horregatik sartzen dira tratuan. Eta erakunde publikoak lurra, herritarrek eta biodibertsitatea babesteko enpresei betebeharrak jartzeko aritu beharrean, alderantziz ari dira, ingurumen legeak abiatu malgutzen".

MANIFESTAZIO KOLORETSUA

Manifestazio bizia izan da Azpeitiakoa: atxikimendua eman duten 84 eragileen zerrendan eta kalera atera dituzten pankarta ugarietan nabaritu da batzen ari direla makroproiektu ezberdinen arteko borrokak, horietako asko lekuan lekukoak direnak.

Herritarren profil anitza biltzen du Euskal Herria Bizirik sareak. Haien hitzetan, "baserriarretatik hasi eta akademiarraino". Pertsona horietako asko bere inguruan eraiki nahi duten makroproiektu bati aurre egiteko batu dira, hasiera batean, talde batera: hor hasi behar izan dute proiektua irakurtzen, informazio teknikoan janzten, proiektuari aurre egiteko alegazioak osatzen... Baina "behin hasierako zaplaztekoa jaso ostean, formatzen eta ikuspegi orokorra eskuratzen joan direla" azaldu dute hainbat militanteek. Denen artean diskurtsoa josten eta sendotzen ari dira. Lurra arriskuan jarria duen sistema kapitalistari kritika egiten diote eta Lurra guztiontzat bizigarri egingo duen beste sistema batera trantsizioa egitea sustatzen dute: "Dei diezaiokegu desazkundera, lokalizazioa, burujabetza, erresilientzia... baina teknikoki ereduak garatzea posible da", entzun da taileurretako batean. ●





Apunte batzuk atarikoan

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

Autonomia erkidegoa eratu zenetik, datorren apirilaren 21ekoak hamahirugarren hauteskundeak izango ditu Eusko Legebiltzarrak. Behin baino ez du gobernua osatu EAJ ez beste alderdi batek; orduko hartan, 2009an, ezker abertzaleari aurkeztea galarazi zitziola baliatuta, PSE-EEK eta PPK gobernua osatu zuten. Gauzak dezente aldatu dira ordutik.

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Agerikoa da bi alderdi abertzaleen gorakada, izan ere, bien artean ganberaren ia hiru laurdena kontrolatzen dute. Alderdi espainolistek behera egin dute: PP, 2001etik hona, 19 eserlekutik 6ra jaitsi da, eta PSE-EE, Patxi López lehendakari zenetik, 9-10 edukitzera igaro. Podemosen espektroa, berriz, Sumar ere kontutan hartuta, desageritzeko zorian dago inkesten arabera. Pasa den legegintzaldian, Elkarrekin Podemosek 6 ordezkari eduki ditu.

Hauteskunde-kanpaina eta inkesten demasa jarraitzen ari den irakurleak badaki titular guztiak gauza bertsua diotela, aspaldian ikusi gabeko lehia estua aurreikusten dela EAJren eta EH Bilduren artean. Lehen indarra izan daiteke koalizio subiranista estreina-koz, baina horrek, bistan da, ez du gobernarritasuna blindatzen, ez badu behintzat EH Bilduk gehiengo osorik lortzen edo beste alderdiren batekin akordio egiten 38 eserlekuen mugarra heltzeko. Gutxiengoan ere osa daiteke gobernua, baina probabilitate eskasa du formula horrek.

Beraz, aldaketa egon daitekeela bai, legebiltzarkide kopurutan edo akaso botoetan ere bai, baina beti ere alderdika hartuta. Izan ere, balizko paktuei

begira, beste behin ere seguruenik hirugarren indar izango den PSE-EEK edukiko du giltza, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat eta hainbat udalerrietan gertatzen den gisan. Aurreikustekoa da, ezustekorik ezean, bien baturak ematen badu, EAJren hautagai lehendakari egingo duela, trukean EAJrekin gobernua sartu eta hiruzpaila sail zuzentzearen truke.

Ofizialki apirilaren 5ean hasi da hauteskunde kanpaina, baina zikloa aspalditik dator; alderdi politikoak udazkenetik ari dira gurdari tira eta tira. Azaroaren 24an jakin zen, filtrazio batez, Iñigo Urkulluk ez zuela jarraituko jeltzaleen buruzagitzan, ez zela hautagai aurkeztuko berriz, hala erabaki zutela Sabin Etxean, eta hautsak gehiago harrotu aurretik, ordu gutxiren buruan kateatu zuten Imanol Pradalesen hautagaitzaren notizia. Izan dute denbora Pradales apurtxo bat ezagunago egiteko, baina urrun geratu zaie apirilaren 21a, data hori ere urtarriletik zurrumurruga ezagutarazi baitzen. Legegintzaldia gehiago katramilatu ez zedin, otsailaren erdialdera arte isilean eduki zuten Urkulluk eta bere gabinetek apirilaren 21eko data. Jakinarazpen ofiziala prentsaurreko batez egin zuen, otsailaren 22an.

PROMESA SEKTORIALAK: OSAKIDETZA ETA ETXEBIZITZA

Horrela ikusita, gai sozialetan jarri denez fokua, datozen hauteskundeek herritarrentzat interesgarriak izan beharko lukete. Ezinbestean ere, esan behar da, fokua horietan jartzea besterik ez zegoen, bataren zein bestearen ereduak eta politikak deriban eta kinka larrian daudelako, eta horiek gogotik ordaintzen ari direlako herritarrak egunero-egunero.

Gizarteko bi alor horiek badute beraien gizartea, publikoa, edo egin daiteke halako bereizketa bat, sikiera. Orokorrean esanda, jakina, Osakidetza gehien joaten direnak 50 urtetik goragoko herritarrak dira, baita gazte-geagoak ere, 30-45 urte artekoak, haur txikiak baldin badituzte. Aldiz, gazteei gehiago eragiten diete etxebizitza berrien prezioen garestitzeak eta alokairu kontratuen disparteak. Komeni da adin eta gai horien arteko bereizketa horrela egitea, tentuz hartzekoa bada ere.

Erreparatu orain adin tarte horietako boto-emaleei. Inkesta guztieta-ko datu txikiak zera diote, 50 urtetik beherako herritarren artean EH Bildu dela boto gehien jasotzen dituen eta, aldiz, EAJ dela garaile muga sinboliko



EUSKO LEGEBILTZARRA

Nola heldu da alderdi bakoitza?



Berrogei urtez bere harribitxia izan den Osakidetza deriba betean dago eta eragina izango du. Auzi sozialak ere batu zaizkio koktelari, etxebizitzarena eta Ertzaintzarena kasu. Galduko ditu eserlekuak, baina ez dirudi gehiegi. Taldea gaztetu arren, konfidantza transmititu nahi dute. *Indar berria.*

ehbildu

PSE-EE



Olatuan doa eta abila izaten ari da surfean. Krispazio eta polemiketarik aldenduta dabil, foku horietatik kanpo, oinarria zainduta. EAJren higadura baliatuko du botoak eskuratzeko. Lehen indarra izatera hel daiteke. *Aldaketa da orain.*



Hirugarren postuan sendo. Programa sendorik ez dauka eta burua zokotik ateratzen du krispazio bila, apenas funtsik izan gabe. Esana du EH Bildu ez duela inola ere babestuko. *Aldatu gidoia* zen hasierako leloa; apirilean, *Erabakia zurea da* jarri dute.



elkarrekin PODEMOS.



Espainiako antzerki-politikari esker emaitza onak izan zituen foru hauteskundeetan, eta abailari eutsi nahiko dio PSE-EEri presio egiteko. Hautagai zaharrunoak berreskuratzen abila da. De Andrés-i euskal txapela jantzi diote kanpainen. *Euskadi Ireki baten alde* leloa darabil.



Deriba oso larrian. Galizian bezala, desagertzeaz leudeke EAEn. Aldez edo moldez egurtu nahi dituzte jeltzaleak, baina ez diete bueltan kasurik egiten. Proiektu eta sinesgarritasunik gabe geratzen ari dira. Baita aurrekonturik gabe ere. *Aukeratu ezkerre.*

VOX

Sumar



Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan tiradarik ez duen alderdi espainiar ultraeskuindarra. Araban zentratuko da eserlekua hala nola eskuratzen. Diskurtso xenofobo eta arrazistarekin abiatu du kanpaina; okerragoak ere entzungo zaizkio. *Badakizu egia dela* (gaztelerez).



Ordezkaritza parlamentariarik ez izateko eta inkestek emaitza kaskarra emateko, ahotsa dute kanpainen. Oinarri sozial apala dute EAEn. Sustengu bakarrak Espainiako Gobernuak presentzia eta Yolanda Díazen fenomenoak ere bai, jakina. Aparra oso azkar ari zaio agortzen proiektuari. *Euskadi berria.*

horretatik goragokoetan. Historikoki ezker abertzaleak sostengua izan badu 30 urtez azpiko herritarrengan, muga hori igotzea lortu du urteen poderioz. Hala ere, 50 urtetik gorakoengan EAJk duen nagusitasuna oso handia da.

Gauzak horrela, beste begi batzuekin ikusten da kanpainaren panorama. Apirila heldzearekin batera eta makineria mediatikoa are gehiago indartu den testuinguruan, argigarria da norantz egin duten deia EAJk eta Pradalesek: hitzeman dute hiru urte arteko haur bakoitzeko jasotzen den hileroko laguntza, 200 eurokoa, zazpi urtera luzatuko duela.

Ukalondoa sartu eta tokia egiteko ariketa izan da jeltzaleen estrategia erdibideko adin-tarte horretan, 30 eta 45 urte artekoetan, dagoen bataila gogorrean. Ez da gauza berria, ordea: tiritatxoak jartze lan horiek lehenagotik hasiak ditu Sabin Etxeak, Jaurlaritzaren bitartez. Haur eskolak doan izateko laguntza sistema ere abian da gainera, eta, adinean beheraxeago jaitzita, berriki indartu ditu Jaurlaritzak emantzipaziorako programak.

Osakidetza da tiritarik handiena behar duena, baina konponbide errazik ez duena. Osasun integrala hedatu, itxaron-zerrendak arindu eta estilo bertsuko promesak egin dituzte alderdi politikoeak. Milioika euro jarri ditu mahai gainean EAJk, berrikuntzak egiteko. EH Bilduren programaren berrikuntza, aldiz, osasun langileen arteko kooperazio eta komunikazioan oinarritu da. Dena den, abileziak jokatu du EAJk, Osakidetza buruzko kritikak heltzen hasi aurretik berak aurrea hartu eta proposamenak egiten.

PROMESA ABANDONATUAK: BURUJABETZA ETA NAZIOTASUNA

Autonomia estatutua indartzeaz harago, Katalunian ez bezala, independentzia goserik ez da sumatzen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Erabat kendu da ideia hori lehen lerrotik.

Euskara da, akaso, bi alderdi abertzaleen artean batasun gehien sorraraz dezakeen gaia. Bide horiek urratzea interesgarria litzateke gizartearentzat, gehiengoarentzat ere bai –alderdi abertzaleen nagusitasun parlamentarioa ikusita–, baina kanpainatik nahiko kanpo geratu da gaia. EH Bilduk eskatu dio EAJri subiranisten gobernuaren babestea, baldin eta subiranistek lortu-

'Aldaketa'

Irauli daiteke legebiltzarkide kopurutan, akaso botoetan ere bai, baina horrek ez du gobernagarritasuna blindatzen. PSE-EEk makina bat aldiz esana du ez duela EH Bilduren gobernurik babestuko

ko balituzte jeltzaleek baino eserleku gehiago. Euskararenean ez ezik, burujabetza eta naziotasunean aurrerapausoak emateko aukera eman lezake gobernu horrek.

INKESTAK: KOALIZIO GOBERNUA ERREPIKATU DAITEKE

Azken EiTB Focusak berdinketa aurrerikusten du EAJren eta EH Bilduren artean, nahiz eta boto kopurutan jeltzaleak gailendu. Jaurlaritzaren otsailko Soziometroak ere gauza bera esan zuen: 27na eserleku bakoitzak. Aldiz, Aztikerren arabera, 29 eserleku eskuratuko litzuke EH Bilduk eta 27 EAJk. Kasu horretan, hala ere, EAJren eta PSE-EEren batuketak 38ko gehiengora heltzea ahalbideetako luke. Argitaratu diren inkesta guztien titularra horixe da, koalizio gobernuaren errepikatze ahalbidea egongo litzatekeela. Egia da ordea, eta Gizakerrekin konfirmatu da azken boladan, hauteskunde aurreko inkestetan baino emaitza hobeak atera izan dituela EH Bilduk.

Gainontzeko alderdiei dagokienean, ezustekorik ezean, PSE-EE izango da hirugarren bozkatuena eta egun dituen 10 eserlekuak mantentzea espero da, agian baita bat edo beste igotzea ere. PPK ere antzera, egungo 6 ordezkariarekin geratuko da edo bat gehiago irabaziko du; eta eskuin muturraz hitz eginda, Vox, egun duen ordezkari bakarra galtzear egon daiteke.

Azkenik, Podemosi eta Sumarri buruz, galdera ikur batekin ardatzen da espektatiba: bizirauteko gai izango dira? Inkestek denetarik diote, baina bien emaitzak batuta bi ordezkariara iristen badira, gaitz erdi. ●



Koop mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak


LRQA CERTIFIED AS 9100

LRQA CERTIFIED ISO 9001

Eziago industrialdea 21, HERNANI
943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus
www.talleresmitxelena.eus



Aldaketa(k) eta une katalana

 ASIER BLAS MENDOZA, EHU-KO IRAKASLEA



Aspalditik EAEko hauteskundeetan parte hartzea Espainiakoetan baino dezente baxuagoa da hautesleen parte batek bigarren mailako hauteskundeak bezala ikusten dituelako. Katalunian antzera izan zen *procès*-a hasi arte. Halere, 2003ko hauteskundeetan partaidetzak nabarmen gora egin zuen lehen aldiz CiUk galdu zezakeelako. Orduko hauteskunde kanpaina egun EAEn dugunaren antzekoa zen: eztabaida teknokratikoa (nork agindu dezake hobeto teknikoki eta ustelkeriarik gabe), aldaketaren beharra (pertsona eta ideia berriei leku egitea), politika aurrerakoiagoak bultzatzea eta estatutu berri bat lortzea.

Gurea antzeko ataka da: 1986tik EAJk lehen aldiz hauteskundeetan lehen indarra izateari utzi diezaioke EAEn. Honek parte hartzea bultzatuko du gutxienez 2012ko %64 ingurura arte, hortik gora handitu ahala seguruenik bi alderdi nagusien mesedetan izango da. Izan ere, XXI. mende hasiera arte EAEn muturreko alderdi anitzeko sistema bat zegoen, azken urteetan moderatuz joan dena aniztasuna murriztuz eta inkestek diotena konfirmatzen bada, 2020an irudikatu zen alderdi biko sistema inperfekturako aldaketa kontsolidatuko da bi aukera politiko nagusiek gutxi gorabehera Eusko Legebiltzarreko jarlekuen %75a lortuko dutelako.

2003an Katalunian garbi zegoen ezkerreko indarren artean batasuna gertatuko zela CiU gobernutik kentzeko. PSCko sektore abertzaleek protagonismo handia hartu zuten erraztuz ERCrekin eta ICVrekin aliantza. EAEn, aldiz, hauteskunde emaitzetan egon daitekeen

aldaketa gobernu aldaketa nola bilakatu ez dago garbi. EH Bilduk hauteskundeak irabaziko balitu ezkerreko alderdien arteko gobernu ez da aurreikusten. PSEk PSCk baino jarrera unionistagoa du eta balizko koalizio batean ez litzateke liderra izango, baizik eta bazkide txikia, horrek sortzen duen inpaktu mediatikorekin Espainian.

Baina, lehia politikoan moderazio nagusi den unean pentsa zitekeen interesen arteko transakzioak funtzionatu zezakeela aldaketa laguntzeko. Nik zu babesten zaitut Espainiako eta Nafarroako gobernuetan eta zuk ni babesten nauzu Iruñean bezala EAEn. Kontua da Hego Euskal Herriko sozialisten giltza Madrilen dagoela eta han gobernu sozialista mantentzeko ezinbestekoa da EAJren babesa. EH Bilduk ez bezala, EAJk PPko gobernuak edo PSOekoak babestu ditzake eta, une honetan, PSOE babesten dituzten alderdi guztien artean PPri babesa eman diezaiokeen bakarra da gehiengo osoa segurtatuz balizko eskuineko gobernu bati.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzan ezkerreko koalizio batek Madrileko gobernu arriskuan jarriko luke. Horrek ez du esanahi ez dagoenik partida. EAJk eta PSEk gehiengo osoa galdu dezakete eta hau horrela gertatuko balitz, badakigu PP prest egongo dela, Gipuzkoan eta udaletan egin duen bezala, EAJ-PSE koalizioa babesteko. Horrek agertoki berri bat irekiko luke, sozialistek ezkerretik higadura sufrituko lukete eta Madrilen gobernuan egoteari utziko baliote EAJk koalizioak egiteko garaian duen zentraltasuna galdu ahal izango luke epe motz edo ertainean.

ARABA

Zer isla elektoral izango du aldaketak?

ASIER ETXENIKE UGARTE, SOZIOLOGOA




Apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, EAJren eta EH Bilduren arteko lehia nabarmentzen ari da, Araba erabakigarria izan daitekeen herrialde bihurtuta. Dinamika hori ulertzeko, azken hamarkadan Araban izandako hauteskunde-bilakaera aztertu behar da. Hiru aldi identifikatu daitezke, 2015-16, 2016-20 eta 2020tik gaur artekoa. EH Bilduk 2016tik gora egin du, EAJ 2020rarte igo egin zen eta orduetik behera dator. Ondorioz, EH Bilduk EAJ gainditu du azken bi hauteskundeetan. Horrek testuinguru politikoa berri bat ezartzen du, bereziki garrantzitsua dena hauteskunde hauetan Araba erabakigarria bada.

Azken inkesten arabera, EH Bildu eta EAJren arteko lehia areagotuko da. EH Bilduren goranzko joera mantenduz, inoizko emaitza onenak lortzeko aukera du, bere sabaia gorago eramanda. EAJ, aldiz, EH Bildurekiko zituen zazpi puntu baino gehiagoko aldea galtzeko zorian ageri da. Beste plano batean, PP errekupeazio txiki batekin PSE-EE bera aurreratu dezake, lehia estuan. Eta Podemosen espazioa zena, bitan zatituta, bere erreferentzia eta eraginkortasun elektoralera erabat galtzeko zorian aurkitzen da.

Arabako emaitza elektoralak 2015/23 eta azken estimazioak Eusko Legebiltzarrerako:

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta hedabideak. **Grafika:** Asier Etxenike.



Arabako bilakaera hori politikoki eta soziologikoki azaldu behar da. Soziologiari dagokionean, nabarmena da herrialdea nola joan den euskalduntzen azken hamarkadetan. Euskalduntzea behetik gora etorri da eta dagoeneko adin ertaineko belaunaldietara iritsi da. Euskaldunak eta erdaldunak portaera elektoral ezberdinak dituztenez, emaitza elektoraletan ondorioak ikusten ditugu.

Politikari dagokionean, herritarren ongizate balorazioa ona izanik, EAJren higadura kudeaketa publikoaren pertzepzio negatiboan ikusten da, bereziki Osakidetzan eta etxebizitza politikan. Baina, EH Bildu EAJren aurretik kokatzeko, ez da nahikoa agintean dagoen alderdiaren higadura ematea, alternatiba sendo gisa agertzea ere beharrezkoa da. Zentzu horretan, EH Bildu etxeko lanak eginda iritsi da: azken hamar urteetako bere lana herrialde osoko udalerrietan, gobernuetan zein oposizioan; bi legegintzalditan Espainiako Estatuko gobernuia sostengatzeko eta eskuin muturra blokeatzeko hartutako erabakiak eta bertan garatutako politika; edo Eusko Legebiltzarrean bertan oposiziotik lortutako edo saiaturako akordioak; horrek guztiak alternatiba sendo eta serio gisa proiektatu du.

Mikrodatuei ere begiratu behar zaie. Izan ere, boto asmoan, sexu eta adinaren arabera banatuta, azken EITB Focusen inkestan nahiko agerikoa da nola, EAJren eta EH Bilduren artean, adinean behetik gora, aldaketa badatorren. 65 urtera arte EH Bilduren hautesleen profila zabala goa eta orekatuagoa da EAJrena baino.

Ondorioz, Araba aldaketan dago. Aldaketa hori aspaldi hasia zegoen eta orain isla elektoral izango du. Zerbateraino? Apirilaren 21ean ikusiko dugu.



BIZKAIA

EAJren gotorlekua kolokan?

 JON AZKUNE TORRES, EHUko IRAKASLEA



Imanol Pradales santurtziarra izango da hurrengo lehendakaria, hori da hauteskunde hauen galderen artean erantzun argia duen bakarra. Horretaz gain, PSEk eta PPK aurreko emaitzak errepikatu edo pixka bat hobetuko dituzte, eta argitzeke dago Sumar eta Podemosek ordezkaririk lortuko duten. Azken urteetan bi arimen arteko labankadak agerikoak izan diren arren, inor gutxi ulertu du boto odolustea eragingo duten bi zerrenda aurkeztea.

Gauzak horrela, badirudi hauteskundeen gatza eta mamia EAJ eta EH Bilduren arteko lehia kokatuko dela. Atzera begiratuta, arraunlari ohiak traineru dezente abantaila du Ima Garrastatxu buru duen zerrendarekiko. 1986. urteko salbuespena kenduta, EAJ izan da beti lehen indarra. Ez hori bakarrik, hamabi deialdietatik zazpitan botoaren %40 gainditu du, eta 11tan bigarren indarrari atera dion aldea %10ekoa baino handiagoa izan da. 2020an adibidez, EH Bilduri ia hogeituz puntu atera zizkion.

Baina etor gaitezen aurtengo hauteskunde lehia. Alderdi politikoek botoaren oinarritzko segmentazioa egiten dutenean, hurrengo banaketa egin ohi dute: boto-emaile fidelak, jasotakoak, ahulak, potentzialak eta urrutikoak. Arrakastaren gakoa lehenengo hirurak mantendu eta potentzialak erakartzea da. Eitb Focus inkestaren arabera, EH Bildu izango da lau boto-emaile horiek hobekien

aktibatuko dituen alderdia. Aurreko hautesleak mantentzearekin batera, 2020an abstenitu zirenen %10, Podemosen %16.3, EAJren %7.7 eta PSEren %4.7 eskuratuko litzuzke EAE mailan Pello Otxandiano buru duen koalizioak.


Horrek garrantzia handia du Bizkaian, EH Bilduren ahulgune izan den hirigune handietan batez ere. Iazko hauteskundeetan Bilbo Handian hazi zen bereziki, era nabarmenean Ezkerraldeko zenbait eremutan. Imanol Pradalesen herria da aipatutako aldetaren adierazle esanguratsua. 2011. urteko udal hauteskundeetan EAJk botoen %49.4 lortu zuen eta Bilduk %14 (%15 Aralar gehituta). 2023an aldiz, %32 eskuratu zuten jeltzaleek eta %27a koalizio subiranistak. Joerak ikusita, epeertainean egon daitekeen indar korrelazio berriaren adierazle izan daiteke ezberrik gabe.

Gaur gaurkoz EAJren gotorlekuak oinarri sendoak dituen arren, bere hormek ez dute aurreko irmotasuna erakusten. Bigarren indarrarekin %10eko tartea ez mantentzea iraulketa historikoa litzateke, eta era argian ziklo politiko berri baten atarian utziko lukete lurraldea. Arreta berezia jarriko nuke Bilbo Handian, EH Bilduk boto potentziala bereganatu duen eta EAJk bere boto emailea aktibatu duen adieraziko digulako. Oro har sorpresarik ez da egongo: Imanol Pradales santurtziarra izango da hurrengo lehendakaria, baina, irabaziko al du Santurtzin?



GIPUZKOA

Biren arteko jokoa

 IKER IRAOLA ARRETXE, SOZIOLOGOA ETA EHUKO IRAKASLEA



Gasteizko Legebiltzarrerako hauteskunderdeei dagokienean, azken hamarkada luzean Gipuzkoa beste bi herrialdeen artean kokatu da: Bizkaian baino aldaketa gehiago, baina Arabako indar harremanen gorabeheretatik urrun. Gipuzkoan gertatutako alternantziak, hori bai, EAJren eta EH Bilduren artekoak izan dira, aspalditik boz autonomikoetan Alderdi Sozialista bigarren maila batean geratuta.

Perspektiba pixka batekin begiratuta, gogoratu behar dugu 2012an EH Bildu sortu berriak Gipuzkoan hauteskunde autonomikoak irabazi zituela, EAJrekin ia berdinduta gelditu bazen ere (bakoitzak botoen %31 eskuratu zuen). Ordutik, jeltzaleak gailendu dira hauteskunde autonomikoetan: alde handiz 2016an, Podemosen sorreraren eta EH Bilduren apaltzearen testuinguruan, eta berriro ia berdinduta 2020ko azken hitzorduan –botoen %36 jeltzaleek eta %35 koalizio independentistak–. Ez dugu ahaztu behar azken hauteskunde autonomikoaren testuingurua oso berezia izan zela, eta parte hartzea inoizko txikiena –%52koa Gipuzkoan–.

Aurreikuspenen arabera, A21ean azken hauteskunde zikloaren joerak indartuko dira herrialde honetan: EH Bilduren gorakada eta jeltzaleen emaitzen apaltzea. Baina gakoa izango da bi joera

horiek noraino iristen diren konstatatzea, hau da, bi alderdien arteko aldea zenbatekoa izango den ikustea. Izan ere, inkestek ziurtzat ematen dute herrialdean EH Bilduren garaipena; baina 2023ko hauteskundeetako emaitzek ere iradokitzen dute Gipuzkoan EH Bilduren eta EAJren arteko aldea handitu daitekeela, azken hamarkadako boz autonomikoetan ez bezala.

Bi alderdi abertzaleek botoen %70 eskuratuta, gainontzeko espazio politikoak ahul agertzen dira herrialdean, bi alderdi nagusientzat haien ekarpena funtsezkoa bada ere. Gobernagarritasunaren ikuspegitik PSE-EEk eragin handia duen arren, emaitza elektoralak aztertuta minimoetan dabil alderdia azken bi deialdietan, botoen %12 inguru eskuratuta. Igandeko bozetan emaitza horiek errepikatuz gero, Alderdi Sozialistaren egiturazko egoera baten aurrean geundeke. Bestetik, *ezker konfederala* deitutako eremu zatikatuaren emaitzek bere garrantzia badute gobernagarritasun alternatibo baten ikuspegitik, baina Gipuzkoan oso emaitza urriak aurreikusten dira. Azken gakoa parte hartzea izango da, igandean ikusiko baita orain dela lau urteko parte hartzea salbuespena izan ote zen ala, aitzitik, aspaldiko behe-rantzko joera baten erakusgarri. Parte hartzearen %60a gaintzea langa sinbolikoa izango da.

PORROTAK, IKASKETAK, BASO JANGARRIAK



IÑIGO ARRUABARRENA
HAZIBERRIAK



HUELEMU.ORG

Bidaia hau hasi nuenean, ikuspuntu erromantikoz imajinatzen nituen baso jangarriak: zuhaitz artean ibili, fruitu goxoak dastatu, loreak usaindu... baina baso jangarriek badituzte arantza ugari ere, porrotak, erratak... Gaur, ikasketa politak eskaini dizkidaten porrot horietako batzuk gogora ekartzera nator.

Zuekin partekatzen natorrena esperientziatik jaio da, Olabe baserriko baso jangarrian sortzeko prozesuaren esperientziatik, hain zuzen ere. Bertan, Attard Mathews-tarrekin batera, 1.300 metro koadroko baso jangarria hasi ginen sortzen 2021eko neguan, 40 zuhaitz eta zuhaixka espezie landatuta. Hona, han egindakotik irakaspenak ekarri dizkidaten hainbat akats:

1. Zuhaitzak elkarrengandik gertuegi landatzea

Zuhaitzak elkartuegi sartzea klasiko bat omen da baso jangarria sortzerako garaian. Domeka goiz batean burua berotu eta zuhaitzak sartu eta sartu hasten da bat, batzuetan, planifikazio barik, beste batzuetan, planifikazioa pikutara bidalita. Emaizta zuhaitzak elkartuegi landatzea izaten da askotan. Lehen urteetan zuhaitzen hazkuntza txikia izanda ere, egunen batean espazio handi bat beteko dute basoan.

Konponbidea landatzen hasi baino lehen plano bat egitea da, bolaluma eta paper zati batean bada ere. Espazioa dimentsionatzeko, marraztu zuhaitzen

diametroak eskala erabilia, borobilez irudikatuta. Zuhaitzen hazkuntzarako faktore garrantzitsuenak oina, espeziea, barietatea eta ingurumenarekiko adaptazioa dira. Galdetu ondo eta informatu erositako zuhaitzak zenbat hazten diren (zabaleran zein altueran), gerora zuhaitzak egurretara bidali ez ditzagun.

2. Belarraren kontrola ez planifikatzea

Euskal Herriko kliman ikaragarri hazten da belarra, bereziki, udaberri eta udazkenean. Horiek kontrolatzeko plan bat izan behar dugu buruan beti. Komeni da, baita ere, zuhaitzen ipurdia material organikoz (lastoa, artilea, kartoia, egur ezpalak...) estalita mantentzea.

Belarra kontrolatzeko hiru modu daude (glifosatorik gabe, noski): moztea, animaliak bazkatzea edo lurgaina guztiz estaltzea. Belarra moztera bazoaz, kontuan izan sega-makina atera beharko duzula paseatzera eta horrek lana eskatzen duela, beraz, kontrolatu basoaren tamaina.

Animaliak bazkatzen izan behar badituzu, kontuan izan zuhaitzak babesitu egin behar direla. Horretarako, sare elektrikoak erabili (zuhaitzak ilaratan badaude) edo zuhaitz bakanak babestu, bereziki txikiak direnean. Ardiak dira baso jangarrietarako animalia bideragarrienak.

Azkenik, lur guztia estaltzea baso txikietan bakarrik da bideragarria. Horretarako, erabili egur ezpalak, artilea, graba edo beste edozein material organiko.

3. Handiegi hastea

Batzuetan arazoa lana hastea izaten da, beldurrak helduta edo. Hasten garenean, ordea, zaila egiten da txikitik hasi eta gutxinaka-gutxinaka sistema zabaltzea. Handiegi hasten zarenean bigarren urterako belar eta lan ezberdinek gaina hartzen dizute eta, ondorioz, desanimatzen zara. Hartu lasai, txikitik hasi!

Planifikatuta izan behar da helmuga, zer bilakatzea nahi dugun baso jangarria. Errazena ilaratan landatzen hastea da.

4. Bakarrik egiten saiatzea

Baso jangarriak gozatzeko dira, ingurukoekin elkarbizitzeko. Partekatu ideia eta ahalegindu proiektua norbaitekin batera aurrera ateratzen, gozagarriago da beti. Hori bai, bakardadeak ez zaitzala kikildu, gogoia baduzu, bakarrik ekitea posible da.

5. Zuhaitzak ez ezagutzea

Fruta arborek sekretu asko dituzte: kimaketak, polinizazioak, tamainak, barietateak, ingurumenera egokitzeak... eta ezinezkoa da horiek guztiak ondo ezagutzea. Praktika, irakurketa eta adituekin elkarbanatzeek ekarriko dizkizute ezagutzak. Ez etsi, goiari eutsi.

Prozesu bat da basoak proposatzen dizuna, esperientziari ekitea, porrotak bititza eta ondorioz, ikasketak berri-tza. Halaxe da basoa, halaxe bititza. ●

A ZE FAUNA!

PROZESIONARIA JALEA



NEREA PAGALDAI AGIRIANO
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Esaera asko sortu ditu hegazti honek. Ikuste-ko zaila den arren, denok ezagutzen dugu. Nola? Kantuagatik. Bere ize-na kantu egiteko erak eman diola pentsa dezakegu. Urtero kantatzen du udaberrian eta uda partera aldiz, isildu egiten da. Esaerak dioenez, “maiatzean kuku, San Pedro-tan mutu”. Nola ez, kukuak ari gara!

Euskal Herriko leku gehienetan *kuku* edo *kükü* bezala ezaguna den hegazti hau, Araban *peku* bezala ere ezagutzen dute. Kukua bere ugaltzeko eragatik ere bada ezaguna, jakina baita ez dituela bere txitak hazten. Kuku emeak beste txori espezie baten habian erruten du arrautza, ondoren, ostalari den txori bikoteak bere txita haz dezan. Txantxangorria, lezkaria edo txepetxa izan daitezke kukuaren ostalariak, besteak beste. Baina, nola da posible txori horiek kukuaren arrautza infiltratua ez antzematea? Baha, kuku emeak espezializatu egiten dira txori mota horien moduko arrautzak egiten. Gainera, normalean espezie beraren habiak erabiliko ditu. Espezializazio hori genetikoa omen da eta txantxangorriek hazitako kukuak, heldua denean, txantxangorrien habietan jarriko du arrautza. Hori gutxi ez, eta kukuaren txita beste arrautzak baino lehenago jaiotzen da eta beste arrautzak edo txitak botatzen ditu habiatik. Ho-



ANDY MORFEW

rrera, habiako txita bakarra izango da, adopzio-gurasoek ekartzen duten janari guztia berarentzat izango da.

Esaeretara itzulita, zergatik egiten du maizatzean kuku? Ez al dugu urtean zehar entzuten zozoak edo txantxangorriak bezala? Ez, kukua migratzailea delako, hau da, negua Afrikan igarotzen du eta udaberrian etortzen da gurera umatzera. Honegatik entzuten dugu lehen aldiz garai honetan, hona heldu bezain laster bikote bila kantuan hasten delako.

Kukuaren lehen kantua diruarekin lotu izan dugu: baserrietan negua pasatu ondoren, kukua entzutean oraindik patrikan dirua geratuz gero, seinale ona baitzen. Norbait diruz larri denean ere, “kukuak oker jo dio” esaten da. Eta are larriago denean: “Hurrengo kukua ez du horrek entzungo!”. Beraz, adi ibili! Orain

KUKUA *Cuculus canorus*

TALDEA: Ornoduna / Hegaztia.

NEURRIA: Mokotik-isatsera 32-36 cm.

Hego-luzera 54-60 cm.

NON BIZI DA? Basoetan.

ZER JATEN DU? Intsektuak, beldarrak batez ere.

BABES MAILA: Europa mailan babestuta dago.

ari baitira kukuak gurera heltzen.

Umatu ondoren, udazkenean berriro egiten du mar-txa Afrikara, negua pasatze-ra. Eta gezurra badirudi ere, bai heldu zein gazteek Medi-terraneo itsasoa edo Saha-rako basamortua gainditu ahal izateko 3.000-4.000 kilometro egin ditzakete hegan, gelditu gabe! Horiek gainditu ostean, Sahel ingu-ruan geratuko dira hilabete inguru, indarrak berresku-ratzeko eta negua pasatuko duten inguruetara abiatze-ko. Negua Nigeria, Kamerun, Kongo edo Angola inguruan pasatzen dute.

Kukua intsektujalea da, hau da, kakalardoak, matxinsaltoak, kilkerak, ziza-reak eta abar jaten ditu. Baina beldarrak ditu gustukoen, substantzia toxiko edo ile erresumingarriak dituztenak barne, adibidez, prozesionaria edo pinu-bel-darra bezala ezagutzen duguna. Beraz, gure pinudietan hain ugaria den beldar horren kontrol biologikoa egiten du ku-kuak. Beste espezie askorentzat beza-la, kukuaren kontserbaziorako habitata eraldatzea eta intentsifikazioa kalte izan daitezke. Sahara hegoaldeko lehorteek ere izango dute eragina. Baina espezie honentzako arazo handia aldaketa kli-matikoa da, kukuaren eta bere ostalari diren espezieen errute garaiak aldatzen direlako, eta horiek bat ez etortzeko arriskua dago. ●

ODOLEZKO LARANJAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

istorio ugari lanbrotzen du bere jaiotza. Bere koloreak erakartzen du gehien. Azalarenak zenbaite-tan, baina batez ere mamiarena da deigarria. Odolezko laranja da (*Citrus x sinensis*). Denetatik entzun izan da bere sorkuraz: laranjaren (*Citrus x sinensis*) eta mingranaren (*Punica granatum*) arteko hibrido bat dela, arabisagarraren (*Citrus x paradisi*) eta mandarinaren (*Citrus reticulata*) artekoa dela eta abar. Azala laranja eta mamia ere laranja dituen laranja tradizionala ezagututa, jendeari arraroa egin zitzaion azala laranja baina mamia gorri-gorri bizi iluna, odoltsua zuena. Gerora azala ere gorria dutenak azaldu ziren, dena gorria. Odolezko laranja.

Bitxikeria guztiek bezala lurralde berriak, merkatu berriak irabazi eta konkistatu ahala, berari buruzko istorio gero eta bitxi eta xebleagoak entzun izan dira. Garrazkiei buruz aritzen garenean jendeak Mediterraneo aldera begiratzen du. Urte askotan esan izan da odolezko laranjak Siziliatik edo Maltatik datozela. Uharte horietako garrazkiak sonatuak izan dira milaka urtetan; eta haiei komeni laranja "berria"-ren jaioterri bezala azaltzea.

Historiak, baina, Mediterraneoetik ekialdera begiratzera behartzen gaitu. Mende honen hasieran laranja gorriak Txinan IV. mendean egon zirela frogatu da. Eta begira zer dioen zortzigarren mendeko txinatar poema batek:



"Kiang-Nango Kiangsun
Laranja gorri txikiak daude
Neguak ez dituenak hiltzen
Airea benetan gozoa baita
Kiang-Nanen".

Zitrikoen alorreko adituek uste dute odolezko laranjak mutazio naturala direla. Iraganean, laranja gozo batek maila genetikoan aldaketa bat jasan zuen eta atalen mamian, zukuan eta azalean kolore gorriko laranja bat sortu zen. Ezaugarri berri hori nahiko interesgarria izango zen norbaitentzat, eta gustatu, eta barietatea hedatzen jarraitu zuten.

Laranja horiek ez dira jatekoak, gozo puntua badute, baina jateko ohikoa bai-

no dezente garratzaigoak dira. Laranja ura edo zuku egiteko erabiltzen dira; horretarako bai, horretarako sona handia dute. Gozoegiak diren laranja ur zozopanderoei bixi puntu ederra eransten diete, eta kolorea ere erakargarriagoa egiten.

Garrazkiak boladan daude, gero eta gehiago sumatzen dira gure lurretan eta plateretan: laranja, limoia, lima eta mandarina ez ezik arabisagarra, bergamota, Budaren eskua, kumkuata, garrazki kabiarrak, panpelmusa, laranja hiruhostoa, lima-tangerina, yuzua, zidra...

Benetako bolada berria odolezko laranja hauek dakarte; presta gaitetzen ezpainak gorritu eta ahosabaia gaxitzeko. ●

JAKIAN EHUNTZEN

ZANGOZA INGURUAN TOKIKO ELIKADURA SISTEMA ERAIKITZEN



GARAZI ZABALETA

Zergatik doa mundu guztia Iruñera erosketak egitera, gure eskualdean elikagai asko ekoizten bada? Zergatik da hain zaila bailara hauetako produktuak bailara hauetako dendetan topatzea?, galdera horiei eta beste zenbaiti tiraka hasi ziren lanean Zangoza aldean duela urte batzuk elikaduraren, jasagarritasunaren eta garapenaren bueltako eragileak eta pertsonak. Cederna Garalur landa garapenerako elkartearen bultzadarekin jarri dute martxan Jakiak Ehuntzen proiektua, Zangozako Merindadeko elikagaien ekoizpen eta komertzializazioarako sarea.

BERTAKO ELIKAGAIETARAKO SARBIDEA ERRAZTEN

Herritarrei eskualdeko elikagaiak eta produktuak eskuratzeko modua erraztea eta, aldi berean, hurbileko ekoizleei merkaturatzeko bide berriak eskaintzea dira proiektuaren helburu nagusiak. Bide horretan, kontsumitzaileen sentsibilizazioari begirako ekimenak ere antolatzen dituzte, eta hurbileko produktuak merkaturatzeko guneekin harremanetan daude: merkataritza txikia, ostalaritza, turismoari lotutako guneak... “Zangozako Merindadea hiru eskualdek osatzen dute: Pirinioek, Prepirinioek eta Zangozak. Guztira 57 herri dira, baina 22.000 herritar eskas gara”, azaldu du Tania Gomez Rodrigok, proiektuko teknikariak.

Nafarroako lurraldearen laurden bat hartzen du gutxi gorabehera eskualdeak, eta teknikariak nabarmendu duenez, mota askotako produktuak ekoizten dira bertan: “Lurraldea hain zabala eta klima aldetik anitza izanda, eskura ditzakegun produktuak ere asko-



tarikoak dira”. Eskualde bakoitzak bere ezaugarriak izan arren, denak dira landa eremukoak eta despopulatzeko maila handikoak. “Abeltzaintza da nagusi Pirinio inguruan: esnekiak, gaztak... Zangoza inguruan barazkiak, fruta, ardoa, olioak, zerealak eta lekaleak ere baditugu”.

BANAKETA ETA MERKATURATZEA TALDEAN

Logistika proiektu pilotua du esku artean Jakiak Ehuntzen egitasmoak: eskualdeko ekoizleak haien artean antolatu dira produktuak kolektiboki banatzeko eta saltzeko. “Distantzia handiak ditugu, orografia zaila, eta bidaiak eta gastuak murriztea da asmoa”, dio. Modu horretan, eskualdeko denda txikiei ere erosketa aldi berean egiteko aukera ematen diete, produktu sorta bat eskainita. Banaketa, gainera, tokiko kooperatiba-

baten bidez egiten dute herriz herri: “Finantzatutako zerbitzua da, banaketak ez die kosturik eragiten ekoizleei, ezta dendei ere”. Oraingoan, ekonomikoki errentagarria izatea oso zaila dela dio, baina haien asmoa da pixkanaka ekoizle eta denda gehiago batzea egitasmoa, bidegarritasun ekonomikoa lortzeko.

Jakiak Ehuntzen proiektuko katalogoan eskualdeko 26 ekoizleek hartu dute parte, eta banaketa kolektiboaren proiektuan 12 daude. Proiektuko ekoizle asko eredu ekologikoan ari dira, baina ez guztiak. “Gutxienez, ekoizle txikiak izatea bilatu dugu, ez eredu industrialekoak. Lurrari lotutako ekoizleak, estentsiboan ari direnak”. Tokiko ekonomiari ekarpena egiteko eta despopulatzeko arriskuan dauden herri on etorkizuna bermatzeko, ezinbestekoak dira halako proiektuak, Gomezen ustez. ●

BERANDUEGI PODCASTA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Umorearen funanbulistak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Sekula ez da beranduegi podcast bat entzuteko. Umore pixka baterako beti utzi beharko genuke egunean tartetxo bat, jattetxe batera joan eta gozoari uzten dioguna adinakoa, gutxienez. Bi astean behin ordubeteko dosia eskaintzen digu *Beranduegi* saioak ARGIAN. Beste hamahiru egunak bete egin behar, baina ostiral batek berez ere izaten ohi duen katxondeo puntuari azken ukitua emateko ezin hobea da Kevin, Torner, Izar eta Axiren berriktaldi ironikoa.

Zu ere jar zaitzeko etxeko sofán –edo balkoian, zorte pixka bat baduzu– garga fresko bat eskuan, eta elkarrizketan murgildu. Hala daudela baitirudi, taberna-giroan, lau lagun, honetaz eta hartaz isildu gabe, konfiantzazko eremuan botatzen diren astakeria, txiste eta gai serioez mintzatzeko plantak eginez. Ahaztuta, 1.000-1.500 entzule inguru dituztela uhinetan. Inprobisazioa maite

dute: “Bakoitzak eramaten ditu buruan ideia batzuk –batzuetan, ez beti, beste batzuetan ezer pentsatu gabe ere joaten baikara–, baina sekula ez dugu izaten gidoirik eta posible da saio batean zuk buruan eramandako gai batek saioaren zentralitatea hartu eta ordu erdiz horretaz aritzea, eta hurrengoan zuk eramandako gaiak ukitu ere egin gabe etxera bueltan eramatea”, azaldu du Kevinek.

Zarauzko gaztetxea dute platoa. Lagunarteko giro horretan aritzeak baditu bere abantailak, benetakotasuna ematen baitio saioari, “baina hanka-sartzeak ere egin izan ditugu, esan nahi ez genituenak errazago esatea baitakar konfiantza-eremuak” aitortu digu Izarrek. “Akatsak onartzen ikasi dut, ez baitauka atzera bueltarik”, esan du. “Espontaneitate horrek badu bere xarma, ordea, bertute bat dela uste dut edo indargune bat, nahiz eta tartean akatsak egin”, gehitu du Kevinek.

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“ ”

“Euskal gizarte hobea eraikitzeko ezinbestekoak diren euskarazko edukien sorrerari nire laguntza apala eskaintzearren”.

Eibartik Ikerrek


“Euskalduna, desberdina, sinesgarriagoa, diru laguntza publiko gutxi jasotzen duena eta independentea iruditzen zaidalako”

Zaldibiatik Josuk

“Interneten bidez irakurri eta kalitate handiko edukiak eta lerro editorial zuzena daukazuela iruditu zait”.

Gasteiztik Ainhoek

Politikoki zuzenaren eta ez zuzenaren mugan dabiltzan funanbulistek badituzte podcast erreferente batzuk. Kevinek, umore edo eredu bezala, “zalantzarik gabe jada grabatzen ez den *Hankak Lurrin* irratsaioa” aipatu digu, baita *La linterna de Diógenes* ere. Izarrek, bestalde, *Bertikala*, *BTN*, *Zarramarra*, *Zozoak Beleari* eta *Deforme Semanal* aipatu dizkigu. Akaso *Beranduegi*-ko entzuleari interesatuko zaizkio, eguneko umore dosia betetzeko. Bitartean, gogoratu, bi ostiralean behin, ARGIAren podcastetan saio berri bat izango duzu. ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Sabbatai Zevi mesiasaren irakaspennak

Esmirna (Turkia), 1647. Sabbatai Zevi rabinoak (1626-1676) bere burua mesias izendatu zuen. Autoizendatze horrek ez zuen une horretan oihartzunik izan. 1651n Esmirnatik egotzi zuten eta hainbat urtetan Grezian, Trazian, Palestinan eta Egipton ibili zen, noraezean. Baina 1665an Nathan Gazakoarekin topo egin eta haren bultzadari esker, jarraitzaileak izaten hasi zen eta oso tarte txikian mugimendu mesianikoak ia Europa osoa hartu zuen, Veneziatik Poloniaraino. Judutarren historian izandako mugimendu mesianiko garrantzitsuenetakoa bihurtu zen.

Baina hurrengo urtean, 1666an, otomandarrek atxilotu zuten Zevi eta mesias judutarra islamera aldatu zen. Bada bertsio bat emakume musulman batekin maitemindu zelako aldatu zela dioena, baina aditu gehienek diote bizia salbatzeko egin zuela. Christopher Hitchens (1949-2011) kazetari eta historialariak 2007an argitaratutako *God is not Great* (Jainkoa ez da ona) lanean zioen "bere jarraitzaile sutsuek beste erlijio bat sor ez zezaten" erabaki zutela Zevi ez hiltzea. "Visirren jauregian, Mesiasari galdetu zioten naturaz gaindiko epaiketa jasotzeko prest ote zegoen. Gorteko arkulariek jomugatzat hartuko zuten, eta, zeruak geziak desbideratuz gero, benetazkotzat joko zuten. Probari uko egiten bazion, paldoan sartuta hilko zuten. Dilema baztertzea nahiago bazuen, benetako mu-



BROCKHOUSE & EFRON

sulmana zela baieztatu eta bizirik utziko zuten". Eta zevik azken aukeraren alde egin zuen.

Haren atzetik joateko dena utzi zuten milaka jarraitzaile, noraezean eta traizionatuta geratu ziren. Baina gutxi batzuek Zeviren atzetik jarraitzea erabaki zuten Islamerako konbertsioa beren sinesmenetan txertatuz. Hiru mende eta erdi geroago, Turkian oraindik badira haren jarraitzaileak. Hitchensen hitzetan, "Turkiako sekta sinkretiko txikiak, *dönme* izenez ezaguna denak, judutarrekiko leialtasuna gordetzen du praktika erri-tual islamikoaren azalaren barruan".

Hitchensek Sabbatai Zeviren kasua

erabili zuen erlijioen sorreraz pentsatzen zuena azaltzeko. "Absurdua da gaur egun milaka milioi pertsonen duela 1.300 edo 2.000 urte basamortuan bizi izan ziren profeta batzuen aginduak jarraitzea".

Bere ustez, erlijio horiek gaur egun nagusi dira profeten gaitasun politikoari esker, beren jarraitzaile eta apostoluen pertseberantziagatik eta, azkenik, zoriak, halabeharrak hala nahi izan zuelako. Sabbatai Zevi beharbada ez zen politikari trebea izan, eta zoria ere ez zuen lagun izan, baina ezin da ukatu bere jarraitzaile batzuk, kontraesanak kontraesan, eta absurdua absurdu, bere inguruan erlijio bat sortzen tematu zirela. ●

Ötziren tatuaje modernoak

1991n Alpeetan Ötziren gorpua aurkitu zutenetik, egoera oso onean kontserbatutako 5.000 urteko arrastoak ikerketa asko egiteko erabili dituzte. Hasieratik arreta eman zuten azalean zeuzkan 61 tatuajeek. Adituek uste zuten tatuaje horiek azalean ebaki txikiak eginda eta, ondoren, zaurietan kedarra igurtzita marraztu zituztela. Baina berriki egindako ikerlan

batean, Zeelanda Berriko Danny Riday tatuatzaileak bere burua tatuatu du hainbat ebaki eta puntzio teknika erabilia eta, gero, orbaintze prozesuak aztertu dituzte Ötziren tatuajeekin alderatzeko. Eta ondorioztatu dute duela 5.000 urte ez zutela ebakirik erabili, orratz edo puntzoi batekin egin zituztela tatuajeak, gaur egungo teknikaren antzekoa erabilia. ●



HEGO TIROLEKO ARKEOLOGIA MUSEOA

“ ”

Nabaritu dadila euskaldun batzuok euskaldun baten istorioa kontatu dugula

Cristóbal Balenciaga telesaila

Cristóbal Balenciaga diseinatzailearen biografia kutsuko fikziozko telesaila egin du Moriarti hirukoteak, Disney+ plataformarentzat. Estreinakoa dute formatu horretan. Aitor Arregi eta Jon Garañorekin egin du hitzordua ARGIAk, Jose Mari Goenaga kanpoan baitzen, eskuartean duten proiektu baterako lanean.

✂ GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA 📺 DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

[Bi proiektorekin buru-belarri ari dira egun, eta arbelean dituzte hainbat apunte. Horra seinalatu dugu] Cristóbal Balenciagaren telesaila ahaztu samar-edo izango duzue dagoeneko...

Aitor Arregi: Atzo, Eroskin nengoela esan zidan batek, besoa altxatuta, urrutitik: “Aizu, zorionak eh!”. Uste dut gutxitan sentitu dudala hainbeste alditan jendeak horrenbeste zoriontzea. Gehiago zoriontzen ari zaizkit *Balenciaga*-rekin, besteekin baino. Igual besteekin zoriontzen gintuzten sariak lortu genituenean, baina ez lanagatik beragatik.

Jon Garaño: Nik ere nabaritu dut jendeari gustatu zaiola, edo sentsazioa dut, dezente ikusi dela. Gertatzen dena da Cristóbal Balenciagak etxea eduki zuela Donostian bukaeraraino, eta harekin istorioak edo bizipenak dituela jende askok, zuzenean ez bada, hurbil. Baten amonak bertan egin zuela lan, lehengusu baten lagunak ez dakit zer...

Joskintza lana ez ezik, edo hori baino gehiago behintzat, bere bizitza pertsonala da erdigunean jartzen duzuen. Eta agian oinarrian hau dago: Cristóbal Balenciagari buruz, pertsona gisa, ez dagoela informazio askorik.

Garaño: Berak horrela izatea nahi zuen: bere lanaz hitz egitea eta ez berari buruz. Erabaki horren inguruan ardatzen da telesaila. Informatu eta dokumentatu gara asko, eta argi ikusi duguna hori da, berak borrokatzen zuela bere lana ikusarazteko eta bere izate pertsonala beste plano batean uzteko. Kontrastea zen gainerako ia diseinatzaile guztiekiko, protagonismo zaleak zirelako. Ateak ixteak kontrako efektua eragin zuen berarengan: jendeak jakin nahi zuen zerbait berari buruz, eta berak are gehiago itxi zituen ateak. Ez zuen elkarrizketarik eman aktibo zegoen bitartean. Gero, ja utzi zuenean, bi elkarrizketa eman zituen, baina oso-oso laburrak biak. Seguru eduki zituela eskaintza handiak.

Telesailaren ildo narratiboan, elkarrizketa bat hartu duzue abiapuntu.

Arregi: Fikzio bihurtu dugu. Elkarrizketa hori ez zen Igeldon eman, baizik eta Franzian. Ezta asteburu oso batean ere, baizik eta arratsalde batean.

Dispositibo narratibo bat behar da gauzak ordenatu ahal izateko, eta buruari buelta dezente emanda, iruditu zitzaigun elkarrizketa bat oinarrian jartzea lagun-garri izango zitzaigula. Balenciagaren misterioaren kontzeptu hori ere argitzeko balio du; azkenean, kazetari bat ari zaio galdezka zergatik erabaki zuen gauza bat egitea eta ez bestea, zergatik geratu zen gortina atzean, zergatik itxi zizkion ateak prentsari, lan egiteko manera, ardurak ez delegatzea...

Gure aldetik, geroz eta gehiago dokumentatu, orduan eta gehiago ohartzen ginen bere ahotsa falta zela. Hau da, ez zeukala iritzirik honi edo hari buruz. Orduan, gure ariketa izan da kazetariaren lekuan jartzea eta hipotesiak egitea, ea hau galdetuta, edo situazio honetan jarrita, zer erantzun edo egingo zukeen. Aukera ematen zigun gure zalantzak kazetariaren ahotsean jartzeko eta istorioa aberasteko.

Garaño: Spoiler moduan esango dut. Atzetik edo azpitik gai bat dago: Balenciagak dena kontrolpean izateko zeukan beharra.

Nola eraikitzen da pertsona bati buruzko istorioa, bere izaerari buruz ezer gutxi dagoenean?



Garaño: Badaude liburu batzuk bere inguruko jendeak idatzitakoak, eta hortik ere asko tiratu dugu. Balenciaga nolakoa zen kontatzen dute pixka bat. Eta horrez gain, bildu gara bera ezagutu zuen jendearekin. Baina jakina, heldua zenean ezagutu zuten. Ez da berdina Balenciaga 40 urterekin, Gerra Zibiletik ihesi Parisera joan zenean, edo bere karreraren amaieran. Segur aski pertsonak ibilbide bat izan zuen, eta hori erakutsi nahi genuen. Jasotako informazio guztia koktelera batean sartu eta gure Cristóbal Balenciaga sortu dugu. Hainbeste irakurri eta entzunda susmoak har ditzakezu, eta susmo horietatik eraikitzea besterik ez da geratzen.

Ez dugu aipatu orain arte: telesaila egiteko ideia ez zen zuena izan. Iritsi egin zitzaizuen.

Arregi: Lourdes Iglesiasek proposatu zion Balenciagak Parisen eman zituen 30 urte pasatxoak kontatzea. Aurretik ibilbide handia eduki zuen hemen eta Espainian, baina abiapuntua hango ibilbidean ikusten zion berak. Eta guk ere bai gero. Baina ez genuen era kronologiko batean kontatu nahi, eta aipatu dugun elkarrizketa oinarri hartzea, fikzio bihurtua, aitzakia ederra zen hori egiteko.

“ ”

Balenciagak borrokatzen zuen bere lana ikustarazteko eta bere izateko pertsonala beste plano batean uzteko

Jon Garaño

Elkarrizketa horrek ezartzen du oinarria, baina kapitulu kapitulu hainbat gai jorratu dituzue. Gai propio bana du kapitulu bakoitzak.

Arregi: Elkarrizketak ematen dio hari orokorra, eta horren baitan daude gai batzuk serie guztian lantzen direnak, baina aldi berean, kapitulu bakoitzak entretenitu behar du. Telesailen ikusle gara, baina sekula egin gabe geneukan ariketa hori. Gainera, ezin dugu ahaztu, Balenciagari gauza asko gertatu zitzaizkiola Parisen: Gerra Zibiletik iheska atera zen, negozio berria ireki zuen, estilo propioa eta bereizgarriaren bila jardun, Bigarren Mundu Gerra eta nazien okupazioa jasan, horrek sortzen duen gatazka politikoa guztiarekin, Dior eta Balenciaga estiloen talka eta pikea ere badago, lanak kopiatzea,

Belgikako Fabiola erreginaren ezkontzarako jantzia... Istorio propioak dituzten kapituluak dira. *The Crown* telesaila datorkit burura, kapitulu batean, hasi eta buka, nola kontatzen den margolari batek Churchillekin duen harremana.

Sakindu dezagun mamian. Aipatu duzue Balenciagak bere lan prozesu osoa kontrolatzeko zeukan beharra, eta interesgarria da lan egiteko manera horri erreparatzea. Bere karrerako azken urteetan, jantziak neurriera egin beharrean, eskala handian ekoizten hasten dira hainbat eta hainbat diseinatzaile. Bi ereduak talka-unea bizitzea egokitu zitzaion Balenciagari.

Arregi: Ulertuta Balenciagari gertatu zitzaiona, era batera edo bestera sektore guztietan gertatu da. Eta horixe egiten zitzaigun interesgarriena Iglesiasen proposamenean, goi-joskintzak eta ikus-entzunezkoen munduak badituztela paralelismoak. Mundu zaharrean zaude, lan egiteko era bat dago, eta bat-batean dator beste gauza bat, gainera pasatzen zaituena. Edo egokitzen zara edo amore ematen duzu. Edo errelebatzen zara eta eusten diozu zure lan egiteko moduari. Zinemari asko gertatzen den zerbait da; zinea egiteko era tradizionalak eta plata-





Cristóbal Balenciaga telesaileko hainbat fotograma.

forma handien ereduak talka egin dute. Nola kokatzen zara egoera berri horretan? Balenciagari harrapatu zion talka garai horrek ja nagusia zela, 72 urterekin, marjina gutxirekin aldatzeko, oso errotuta ideia batzuekin eta lan egiteko forma jakin batzuekin. Saiakerarik egin zuen; Air France-ko istorioa, adibidez.

Egiletzari garrantzia berezia ematen dio, bistan da. Balenciaga markadun jantziak bere parte zirela sentitzen zuen.

Garaño: Kontatu dizkigute anekdota batzuk, nola ezin zituen bezeroen jantziak, berak eginak, zulo txiki batekin, edo ondo jantzi gabe... eta kapaza zela pertsona hori hartu, etxera eraman eta berak eskuz josi eta konpontzeko. Oso interesgarria da hori Balenciaga deskribatzeko.

Bada topiko bat, egiten duzun pelikula edo margolanean zu zaudela kamuflatuta, zurea dela sentitzen duzula, hor zaudela, zaindu nahi duzula. Zer da sorkuntza, non amaitzen da prozesua, nola kudeatu frustrazioak, trabak, isolamendua, pentsamenduak... Eztabaidagai horiek kanalizatu ditugu Balenciagaren gisako sortzaile

batean. Berak esaten zuen artisaua zela, eta ez artista; baina azkenean, bere jantziek hainbesteko pertsonalitatea eta berezitasuna daukate, artista egiten dutela.

Ez dakit aurretik goi-joskintza eta mundu hori ezagutzen zenuten, baina prozesua hain luzea izanik, ikasiko zenuten dezente.

Arregi: Zeretik hamarrerako eskalan, ni pasa naiz zerotik zero koma zortzira [barre egin du]. Teknikari buruz ez dut gehiegi ikasi, baina mundu horrek nola funtzionatzen duen, edo zuen, desfileak eta abar, oso interesgarria egin zait.

Prozesua, gainontzean, neketsua izan da. Bi urte eta erdi luze izan dira. Dimentsio oso handiko proiektua izan da, ia-ia hiru pelikula batera egitea bezalakoa. Arnasestuka ibili gara behin baino gehiagotan, errealizazioaren kasuan, eta tentsio momentu asko ere izan ditugu, lana planifikatzeko. Gauza asko zeuden egiteko: mundu bat zerotik egin behar zen, eta, bereziki, jantzien kontua. Ezin duzu edozer gauza egin Balenciaga batekin, ezin duzu erridikulua egin. Jantzitegiko taldea bikaina eduki dugu, eta eskerrak

horri, kontu zehatz asko daudelako, kapitulu bakoitzean jantzi konkretuek agertu behar dutelako.

The New Look (Apple+) telesaila ikusi duzue? [Christian Dior diseinatzailearen ingurukoa da, Parisen kokatua; Balenciaga ere ageri da].

Garaño: Ez, baina irakurri dugu zerbait.

Telesail amerikarra da, zeinetan nazien okupazioak-eta protagonismoa hartzen duten, lehergailuak-eta, imajina ditzakezuen kontuak... Oso epikoa zentzu horretan. Zuen lanarekin alderatuta, fokua beste nonbait jarrita.

Arregi: Gure *highlight* momentua, nazien desfilea grabatzea izan zen, gauez, Donostiako portuan [barre egin du]. Guk ere jarriko genituzke bonbak, baina epikoa izatea aurrekontuarekin doa. *The New Look*-ek agian gureak baino hamar aldiz gehiago kostatzen du.

Garaño: Enpresa ikuspegitik eta Balenciagaren alde psikologiko eta politikotik heldu nahi izan diogu, aurrekontuaz gain,



jantziteriarekin baino seguruago sentitzen ginelako. Atentzioa ematen zigan nazien okupazio garaian aktibitate horrek guztiak aurrera jarraitzea. Irakurri dugunagatik, kontserbadore kutsua zuen Balenciagak, baina batere ez zen busti. “Apolitikoa” zela zioen. Bazituen lagunak, bukaeraraino, Francoren orbitakoak; are gehiago, egin zuen azken soinekoa Francoren bilobaren ezkontzarako izan zen. Eta justu, azken aurreko jantzia, beste muturrean zegoenari: Vicente Ameztoyen emazteari. Anabasa interesantean mugitzen zen Balenciaga.

Arregi: Galdera da ea nazien okupazioan izan zaitezkeen apolitikoa. Interesantea da Bizkarrondo bazkidearekin dituen elkarriketak, azken hori errepublikanoa baitzen, Gerra Zibilek alde egindakoa. Une batean esaten dio Balenciagari: “Dena da politika, baita egiten dituzun kapelak ere”.

Netflixek duela gutxi estreinatu du *Picaro: El pequeño Nicolás* telesail-dokumentala. Florentino Pérezi galdetzen diote ea PSOEkoa ala PPkoa den, eta berak honela erantzuten du: “Ni boterea naiz”.

Garaño: Botereari loturik dagoen apolitikotasuna da. Maila horretan dabilen jende askoren nortasun agirian dagoen zerbaite; orain Aznarren laguna naiz, orain Zapaterorena.

Alberto San Juanek lan handia egin du Cristóbal Balenciaga horrela gorpuzten.

Arregi: Ez dut imajinatu nahi bera gabe zer izango zen hori. Eszena guztietan dago ia. Eta berak bai zeukala lana, frantsesez eta euskaraz hitz egiten gainera; ideiarik eduki gabe euskaraz, eta frantsesez apenas. Irakasle banarekin ibili da.

“ ”

***Mundu zaharrean zaude,
lan egiteko era bat dago,
eta bat-batean dator
beste gauza bat gainetik
pasatzen zaituena***

Aitor Arregi

Nola eraman du?

Garaño: Graziosoa izan da, bera saiatzen baitzen euskara praktikatzeko, eta agian hitz egiten zuen taldeko batekin, gernikarra, eta kontu eske etortzen zen gugana: “Honek esan dit honela eta honela esaten dela, ez zuek esan didazuen bezala”. Esprikatzen saiatzen ginen bere pertsonaia getariarra dela eta ez duela berdin egiten. Berak esaten zigan “debekatu” edo *kapatu* egiten geniola lankide batzuekin hitz egitea [barre egin du].

Lanketa ere egin dugu euskararekin. Nahi genuen garaiko Getariako euskara izatea, eta hizkuntza egokitzen asko lagundu gaitu nirekin ikasi zuen Kepa Iribarrek [Euskadi Irratikoko kazetaria], eta berak kontrasteak egin ditu familiako senide helduago batekin. Gero, Bizkarrondo familiak [Balenciagaren bazkideak, euskaldunak] donostiarrez egiten du, eta errazagoa zitzaigun hori.

Eta Disneyk nola hartu du euskararena?

Garaño: Gustatu zitzaion Balenciagari buruzko telesaila egiteko ideia, nahi zuten guk egitea gainera, gure aurreko lanengatik, eta bereziki gustatzen zitzaion

gu euskaldunak izatea, hemendik kontatu zitekeelako istorioa. Hori irudikatzen gauzarik onena hizkuntza bera da, eta garrantzia eman genion horri. Disneyri gustatu zitzaion guk horrela nahi izatea, nahiz eta gogoan dudan beldur pixka batekin planteatu geniola hasieran.

Espainiako Estatuko Disneyk ez du doblatu pelikula, baina Frantzia eta gaintzeko herrialdeetan bai. Hau da, Frantzia frantsesez dago dena, Ingalaterran ingelesez ikus dezakezun gisan, baina Espainian hiru hizkuntzak mantendu dituzte, azpitoluekin. Aktore lagun batek esan zidan adi egoteko, behin estreinatutakoan ez ote zuten aldatuko, Movistarrekin halako esperientzia bat zutelako...

Arregi: Marka izango zen gero; euskara gutxi dauka eta gainera doblatzea. *As bestas* galegoz da eta ohitu dira horretara, euskarazko pelikulak ikusteko aukera ere zabaldu dute, saritu dituzte gainera... Guk argi geneukan euskara sartu behar zela, Balenciagak amarekin duen konexioa erakusteko. Ez dakit Extremadurako edo Parisko bati zer esaten dion, baina guri asko esaten digu. Guretzat diferentziala zen euskara egotea eta Euskal Herriko kontaketa istorioa. Nabaritu dadila euskaldun batzuek kontaktu dugula euskaldun baten istorioa, eta ez, errespetu osoz, korear batek.

Estatubatuarrek segitzen dute oraindik horrela egiten, garai batean egiten zen bezala. Errusian kokatzen bada pelikula, ingelesez hitz egiten dute lasai-lasai. Eta ohituta gaude gu, horrela ikusten ditugu. *The New Look* aipatu duzu lehen, eta hor, irakurri dudanez, ingelesez egin dute guztia, Parisen kokatu arren; frantsesaren ukituak dituen ingelesa, gainera.

Disneyk jarri du dirua. Zer moduzko



esperientzia izan duzue?

Arregi: Orokorrean, eta beste plataforma batzuei buruz entzuten diren gauzak kontutan hartuta, ezin gara kexatu. Asko errespetatu gaituzte. Egindakoa gure lan propioa dela ulertzen dugu, nahiz eta gauza txiki batzuk inposatu dizkiguten. Oro har, dena den, zentzuzko gauzak izan dira. Disney gurekin hasiberria zen Espainiako Estatuan, eta orain, hiru urte pasatu direnez, pentsatzen dut beraiek ere izango dutela eskarmentua, normala da.

Entzuna dut Donostiako Zinemaldiko zeozer...

Arregi: Berez hemen estreinatzekoa zen, baina AEBetatik erabaki zuten atzeratzea. Hango logikan berdintsu zaie Zinemaldian estreinatu ala ez. Adierazi genien desadostasuna, pena ematen zigula, hemen egindakoa delako, hemengo ekioparekin eta buruhauste galantak sortu ditugulako Donostiako trafikoa. Azkenean, hilabete batzuk geroago egin zen estreinua Victoria Eugenia.

Garaño: Beraiek datu asko daukate. Badakite zortzigarren minutuan zenbat ikuslek utzi dioten telesaila ikusteari, edo lehen kapitulua bakarrik zenbatek ikusi duten. Obsesionatuta daude horrekin, eta tematu zaizkigu lehen kapitulua bereziki erakaragarria egiteko esaten. Diru asko inbertitu dute, eta ondo joatea nahi dute.

Emitza onak ematen ari da?

Garaño: Ez digute daturik eman, hori da plataformen politika. Soilik esan digute oso pozik daudela bi gauzengatik: estreinaldi ona izan duela, eta ikusi duenak hasi eta buka egin duela. *The Guardian*-en kritika oso ona izan genuela eta Alemanian ere bai, eta horregatik ere pozik daude. Email bidez esan dizkigute gauza horiek.

“ ”

Euskaldun baten istorioa hemendik kontatzeko, tresnarik onena euskara da, eta garrantzia eman nahi genion horri

Jon Garaño

Batek baino gehiagok galdetuko dio bere buruari ea zergatik ez duen ETBk egin telesaila, edo gutxienez eskaini, euskalduna zelako Balenciaga, eta bere irudia sarri hauspotu dutelako euskal erakundeek. Egia da jatorrizko ideia ez zela zeuena, eta Disney-k erosi duela, baina...

Garaño: Arazoa izango litzateke, argi eta garbi, aurrekontua. Horrek ez du kentzen, nire ustez, ETBren ardura serieak euskaraz egiteko. Uste dut apustu handia egin beharko litzatekeela.

Arregi: Orain etorriko dira esatera geuk egiteko...

Garaño: Ba egingo genituzke, baina eman diezazkigutela eskatzen ditugun baliabideak. Garrantzitsua ikusten dut helduentzako telesailak egitea. Umeentzat eta gazteentzat egiten ari direnak ondo ari dira, nik etxean ikusten ditut, badaukate beraien publikoa, *Goazen* fenomeno da... Orain dela urte batzuk egin zen saiakera bat lau mini-serie aterata, denak kasik kolpera emanda, derrepentean, eta hortxe geratu zen. Zorionez, hala ere, uste dut badatozela batzuk.

Arregi: Sentsazioa dut fikzioak marka

bat ematen diola kateari, saio konkretuek eta albistegiek egiten duten bezala. ETB egon daiteke pelikula baten atzean, finantzazioan, baina pelikula ulertzen dut gehiagorena den zerbait gisa, zinetatik pasako dena-eta. Fikziozko telesailak behar ditugu. Garestia da, baina uste dut balio duela. Fikzioarekin kontatu dezakezu hemengoa den zerbait, *Alardea* edo *Altsasu* izan ziren bezala. *Balenciaga*-rekin hori egiten saiatu gara.

Garaño: Guk egiteak eta bertan egiteak balio erantsi handia ematen dio. Esaterako, HBOk egin zuen *Chernobyl*, arrakasta handia eduki zuen, baina Errusian haserretu ziren eta haiek egin zuten beste telesail bat, haiena kontatzeko.

Japonian haserretu dira Oppenheimer-ekin...

Garaño: Gure istorioak geuk kontatzea inportantea da. Munduan egoteko forma da.

Aurrera begirako bi proiekturen izenak ikusten ditut arbelean. Zer daukazue eskuartean?

Garaño: Enric Marcoren bizitzari buruzko filma izango da bata, *Marco*, 2005ean egindako adierazpenen harira. Udazkerako amaituta edukitzea espero dugu. Eta orduantxe hasiko gara bestea grabatzen, *Más palomas*.



Lehena gaztelaraz eta katalanez izango da pelikula, ingeles eta aleman pixka bat izango du, eta bestea, batik bat, euskaraz.

Arregi: Tokatu zaigu gauza bat amaitu eta beste bat martxan jarri behar izatea, eta hori amaitzen ari ginela beste batekin jartzea... Ez da ohikoena, baina horrela izan da. Berez *Balenciaga*-ren aurretik zihoan *Marco*. ●



Puzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA CAROLINA GANDULFOK, DOKTOREA ETA GUARANIERA IKERTZAILEAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

7			1		3	4		
3	8		4	6	2		7	
5	1		8		2	6		
1	7			8	9	3	4	
6	4	8		3			2	
9			1					
4	6	1	2	9		8	7	3
8			3	4	1			6
				6	4			

ERRAZA


		2			7	4		6
	1			2				
4					9	3		
			9	7				
							5	
	2	8		3		7	4	9
	7		1		3		9	
1		6						
				8		3		

ZAILA

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Haitzulo, koba.
2. Hitzak, berbak.
3. Iel jarri
4. Kroaziako hiria, Dalmazian.
5. Geldirik, lasai.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				A	G	O	T	U
2	G				L	E	K	U
3	B	A				L	D	I
4	A	S	T				T	E
5	G	E	R	T				A
6	D	E	I	T	O			

EBAZPENAK

2	5	3	7	8	6	4	9	1	
8	9	7	3	4	1	5	2	6	
4	6	1	2	9	5	8	7	3	
9	3	2	1	7	4	6	8	5	
6	4	8	9	5	3	7	1	2	
1	7	5	6	2	2	8	9	3	4
5	1	4	8	3	7	2	6	9	
7	2	6	5	1	9	3	4	8	

2	9	5	7	8	4	3	6	1
1	3	6	5	9	2	8	7	4
8	7	4	1	6	3	2	9	5
5	2	8	6	3	1	7	4	9
7	6	9	2	4	8	1	5	3
3	4	1	9	7	5	6	2	8
4	5	7	8	1	6	9	3	2
6	1	3	4	2	9	5	8	7
9	8	2	3	5	7	4	1	6

PUZLEA: "IRAKASLEEK ESAN ZIGUTEN HAIEI ERE, ESKOLAN, GUARANIERAZ HITZ EGITEA GALARAZI ZIETELA, ETA GURASOEK ERE EZ ZIETELA UTZI ETXEAN GUARANIERAZ EGITEN."
5XS: 1. LEIZE, 2. ELEAK, 3. IELDU, 4. ZADAR, 5. EKURU.
HIZKI BERAK: 1. AREAGOTU, 2. GERALEKU, 3. BAREALDI, 4. ASTEARTE, 5. GERTAEARA, 6. DEITOREA.



Hitzik gabe

 AINHOA MARIEZKURRENA  KULUNKA TEATRO

Animalia bat begiratu eta beti triste dagoela pentsatzen duen horietakoa naiz, ez baitu espresioa aldatzen, maskara espresiboak bezala. Noski, ez nabil zuzen.

Antzerkiaren hiru pilareak dira hitza, gorputza eta irudia. Kulunka teatroak haietako bat sakrifikatzea erabaki du berriro ere eta zin dagizuet: ez da inondik ere faltan botatzen. Izan ere, beste biak indartu egiten dira eta hara non sortzen den magia.

Aktoreen lana bikaina da. Eurena ez den aurpegia beraiena egitea eta publikoari hori naturala dela kontatzea ez da batere erraza. Aurpegiko espresioa bakar batean dute finkatuta, baina hamai-ka dira antzematen direnak. Ikaragarria da *Forever* antzezlanak kontatzen eta transmititzen duen guztia.

Agertokiaren magiak ikuslea irudi-

menezko mundura darama, emozioek gainezka egiten duten lekura. Maskarak, paradoxikoa den arren, bizia dakarte eta nolana edonor sentiarazten dute istorioaren parte. Antzezlan honen gidoia oso landuta dago, elkarrizketarik ez badu ere. Esaterako, familia baten istorioa kontatzen dute eta, semea jaiotzean, desgaitasuna duela kontatzeko gurpildun aulki bat besterik ez dute erakusten. Denok ulertu dugu. Nola kontatzeaz gain, esanguratsua da eszenografiak berak sortzen duen irudia. Eszenatokia mugitu egiten baita, birakaria da eta hiru espazio bereizten ditu. Trantsizioak mundialak dira, ia zinematografikoak, pertsonaia bera ikusten baitugu aldi berean desagertzen eta beste aldean agertzen.

Kulunkak dakarren drama honek asko dauka penatik, baina baita umoretik eta samurtasunetik ere. Eta batez ere mai-

tasunetik. Maiteminduta dagoen bikote baten ilusioa eta zirrara dakarte eszenara, elkarrenganako desira amaigabea. Semea jaiotzean, maitasuna harenganako bihurtuko da batik bat, baldintzarik gabekoa baina baldintzaz betea. Sentimendu horri, nekea, errua, erantzukizuna, kezka, eta beste hainbat emozio batuko zaizkio, obra interesgarriagoa bilakatuko dutenak eta *in crescendo* batean kokatuko. Pertsonaien garapena mundiala da eta baita dramaturgiarena ere.

Hernanin sortu den konpainia hau nazioartean dabil, eta dagoeneko 30 herrialdeetara eramán dituzte haien obrak. Hainbat sari jaso dituzte antzezlan honekin, esaterako, Max Sariak. Kolaboratzaile ugari taldea da eta detaileetan nabari da. Antzerki honetan, istorioek ez dute hitzik eta publikoa ere hitzik gabe uzten dute. ●

FOREVER

NOIZ: martxoak 11 **NON:** Victoria Eugenia (Donostia)

GENEROA: maskara antzerkia

EGILEAK: Iñaki Rikarte, José Dault, Garbiñe Insausti eta Edu Cárcamo

ZUZENDARIA: Iñaki Rikarte

AKTOREAK: José Dault, Garbiñe Insausti eta Edu Cárcamo



LIBURUA

Mamu bat gure artean da



HIRUKA.EUS

AIREMORTUAK
GORKA SALCES ALCALDE
 BALEA ZURIA, 2024

MADDI GALDOS ARETA

Eguzkiarekiko gertutasunak moldatau egin ei du Lurrak duen abiadura, eguzkia inguratzeko mugimenduan. Beste abiadura batzuk ere badira, ordea, eta balirudike lurraren abiada gero eta azkarragoa dela edo, bederen, aldaketak etengabe ditugula orpoz orpo jarraika. Egoera honetan, bada, ahaztutako izendapenak berreskuratzea edota berriak sortzea ezinbesteko zaigu: tartean, egungo liturgia eta gurtzak aipatzeko zein mugikorra askatu ezinaren ondoriozko lepo eta hatz deformatuak bataiatzeko. Gorka Salces Alcalde (Portugalete, 1986) berrelikadura harremanean diren munduaren eta gizakiaren aldaketez mintzo zaigu plazaratu berri duen eta bere ibilbideko bigarren den *Airemortuak* (Balea Zuria, 2024) olerki bilduman, datorrena izendatzeko itxaropenaren

eta mesfidantzaren hitzezko sintesizat har genezakeena.

Poemak lau ataletan sailkatuta daude: *Baby blues*, *Udaminaren logalea*, *Etziko enbatak* eta *Overbooking*, eta bilduma ixten duen epitafio bat ere topa genezake. Oro har, aieruak mamitu eta gure artean diren mamuak seinalatu-ta, etorkizunak ekar dezakeenari begiratzen dio *ni* poetikoak, horretarako, belaunaldi arteko alde eta harremanei, estratu geologikoei zein giza-aztarnari eta antsiolitiko bidez naretutako arrangurei erreparatuta. Horrekin guztiarekin, indibidualtasunari eta hurkoa zein ingurunearekiko dugun arduragabetasunari loturiko ikuspegi kritiko eta zorrotza ondu du Salcesek poemotan, naturaren suntsipena, turistifikazioa, teknologiarekiko mendekotasuna eta bestetzuk hizpide izaki, eta kezka per-

tsionalak –semeari begira sortzen zaizkionak kasu– kolektiboekin bilbatuta: “Frakaso hutsa naiz gara / zarete / animalia sozial bezala”.

Aipatu oro egiteko bildumari batasuna ere ematen dion iruditegi naroa ondu du portugaletarrak, besteak beste, naturak berariazko dituen fenomenoak, elementu zinematografikoak, erlijio kutsudunak eta teknologiak zeharkatutako bizimodu garaikideari loturikoak uztartuta. Azpimarragarri dira, halaber, memoria lagun eite narratiboa duten poemak, etorkizun ziurgabeari aurre egiteko atzera begiratzen dutenak. Galdutakoak laudatzeak, ordea, ez gaitu dugunetik salbuesten. Tentsio horretan dira, bada, Salcesen poemak: “Hainbeste denbora itzultzeko zain / eta ez ditut errekonozitzen / itsaso tranpati honek / nire azalean jalkitako kristalak”. ●



MUSIKA

Amorrazioa, jarrera eta kantuak



SEXPEARESEK UITZIA

IKER BARANDIARAN


Madrilgo queer mugimenduan kokatzen nuen taldea, eta orain gutxi bere esentzian –zuzenekoan– ezagutzeko aukera izan nuen. Orduan jakin nuen Argentinan jaiotzen baina gaztetan Madrilerako joandako Belenek (ahotsa eta gitarra) sortu zuela taldea, eta Mariarekin (bateria eta koroak) bat eginda, taldeari jarraipena eta sendotasuna emateko Barakaldo hartu zuela bizileku.

2009an sortuta, biek osatzen dute taldea, baina kontzertuetarako badituzte baxua jotzeko hainbat lagun. Estilo eta erregistro paleta zabala dauka taldeak, baina beti indar eta amorru biziarekin idatzitako kantuak dira. Erraietatik idatzitako haien hitzek adin tarte askotarikoekin konektatzeko gaitasuna daukate.

Taldeak, ustez modu apalean aritzen bada ere, ibilbide emankorra dauka: kontzertu ugari bizkarrean, filmeen soinu bandak ere idatzi izan dituzte, eta honakoa, taldearen izen bera daukana, bosgarren lan luzea da, kasu honetan kasetean argitaratua.

Zuzenekoan harritu ninduten taldearen amorrazioak eta jarrerak, Belenek oihukatzeke zein xuxurlatzeko daukan erregistro aldaketa gaitasun izugarriak, Mariaren indarrak eta kantuak ia axolagabeki *hit!* bihurtzeko erraztasunak.

Pégales fuego da taldearen lehen aldarria, "... y esnifa sus cenizas" esaldiarekin erritmo tribal, hardcore-punk ilun eta melodia grabe sarkorrarekin su hartzen du. *La de la ciudad* da erabateko



SEXPEARES

SEXPEARES

EL DROMEDARIO RECORDS

aldaketa: sarkorra, biharamuneko, malenkoniatsua eta oso-oso itsaskorra; *hit!* hutsa. *Soy torta*, haien kantutegian hain ohikoa den punk-poparen adibide azkar eta amorratua. *Espiral*, berriz, tonalitate desberdinak, gitarra ilunak eta erritmo bizia batzen dituen pieza. Eta *Capítulo final* urgentziatzeko punka ahots oso-oso melodikoarekin.

Kasetearen B aldean, ordez, oso koordinada desberdinetako musikarien kantuak bere egiteko ariketa egin digute: Bad Gyal-en *Fiebre* rock melodikoa; Putochinomaricon-en *Ojalá (te murieras)* punk melodikoa; Nosothrësh-en *Mis muñecas* pop itsaskorra; eta Luna Kiren *Voy a morir* punk erritmoko rock urbanoa. ●

Nire dūrūma defendatuko dut

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Bagenbiltzan ba egun hartan ere, azken orduan etxetik kanpo bazkaltzea okurritu, modakutegi guztiak kokoteraino beterik eta gu bilaka-bilaka, baina inon lekurik ez. Euria baldeka botea zuen aurreko asteetan eta, halako batean, zeruan suzko bola hura agertzeak –nola zuen izena ere ahaztuta geneukan ordurako–, antza denez, optimismo kontsumitzailez bete gintuen denok batera. Behin egin nahi gure herrian turistaplana eta ezin: etsiak hartuta, etxeko dilistekin konformatu beharko genuela sinetsita, bagindoazen bueltan, kalearen amaieran lokal hura agertu zitzaigunean, luxu otomandar baten gisan: mahai batzuk libre zeuden Kebab-ean.

Prousten madalenaz futitzen naiz, dūrūm hark eragin zizkidan *flashback*-ak gogoratze hutsarekin. Hemeretzi urte, patrikan lau sos eta bost axola hasi genuen Interrail hartara bueltatu nin-

tzen bat-batean. Atun latak ogi tartean, besterik ez genuen jan gurutzatu genituen lehenbiziko lau herrialdeetan; eta Robinson Crusoreen piurarekin Istanbulera iristean nonahi aurkitu genituen Döner Kebab-engatik izan ez balitz, ez dakit historia hau kontatzeko moduan izango nintzen ere.

Baina han zeuden, kale kantoï bakoitzean, bibote sarriaren azpitik irribarrez, gure sabeleko armiarma-sareak koipeztatuko zizkiguten kebab saltzailak: supermerkea, hiperkalorikoa, megagustagarria eta, matusalenki ari naizenez barre egingo didazue baina, nahiko janari exotikoa guretzat artean. Gero, hori bai, oso denbora gutxian agertu ziren jatetxeok gure hiri –lehenbizi– eta herrietan –geroxeago– eta, aurreko guztia kontuan hartuta ulertuko duzue, betidanik izan diet kariñoa.

Puntu gehiago alde, izan ere, egun hartako bazkaria salbatu zigun keba-

baren barraren gainean “Palestinarekin elkartasuna” zioen afixa zeukaten jarrita –dūrūma bai, borroka ere bai–, eta gure artean komentatu genuen turismoak gastrotekatu dituen herriko taberna gehienetan honezkeroko pentsaezina dela halakorik aurkitzea.

Eta kontu hauek denak ari naiz hemen botatzen, susmoa daukadalako –sartu musika dramatikoaren hemen– horrelako lokalek mehatxu berri bati egin beharko diotela aurre hemendik gutxira. Joan den astean dinbi-danba pixka bat eragin du Twitterren –bai, orain beste izen bat dauka, baina tira– Madrilen ireki duten janari azkarreko negozio berri bati buruzko txioak, zeinak “keba-bei buelta bat eman” nahi dien, haragia robata estiloko barbakoa japoniarretan errez eta produktua lokal txatxi batean zerbitzatuz. Menua ia 15 euro. Ni dagoeneko urduri nago, izan ere, entzuten dudanean janari arrunt baten “kontzeptu berri bat” eskaintzen hasiko direla, kasuen %99an koloretzoz beteriko prezio igoera salbaia etortzen baita atzetik.

Furgofarrak *food truck* bihurtu zizkiguten, eta nik ez nuen ezer egin, parrandan “afaldu denbora galdu” esaten zutenetako nintzelako. Pintxoei artelaren prezioak jarri zizkieten, eta ni geldi-geldi geratu nintzen, tabernan poltsako patatekin konformatzen nintzelako. Hanburgesen bila etorri ziren, eta Foucaulten liburuak baino konplikatua ziren saltsekin zerbitzatzen hasi ziren, eta nik beste aldera begiratu nuen, haragi gorriaren oso fan ez nintzelako. Baina nire auzoko kebaba defendatuko dut, *foodie*-n kontra, esperientzia gastronomikoen kontra, hemen eta Singapurren berdin-berdin aurkitu ditzakezun lokalen kontra. Abisatzen dizuet, armak hartzeko prest nago nire dūrūmaren defentsan: prest dauzkat bi ur-pistola yogurt saltsaz beteta. Ez etorri niri txorradekin. ●



HAUSNARREAN

Ardiek egin naute artzain

Josebe Blancoren liburua

Aurkezpen hitzaldiak

Apirilak 25 / Agurain. 19:00 Udala

**Maiatzak 16 / Zumaia. 18:30
Emakumeon* Etxea**

**Maiatzak 17 / Leitza. 18:00
Liburutegia**

**Maiatzak 18 / Artea. 11:30
Herriko benta**

Maiatzak 31 / Bilbo. 19:00 Karmela
(Fika kalea 44, Santutxu)

**Ekainak 6 / Gasteiz. 18:30
Elkar liburu-denda** (San Prudencio kalea)

Zure herrian hitzaldia antolatu nahi baduzu,
idatzi: bizibaratzea@bizibaratzea.eus



2. argitaraldia

Prezioa **22€**

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45




HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**. Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.



Tailerrak

Irakurtzen eta idazten ikasiko dugu animaliekin jolasean. Umeentzat, irakasleentzat edo familientzat.

solasaldiak@argia.eus



Egileak:

Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzagüena.